


ARRASATEKO 6-18 URTE BITARTEKO HAUR ETA NERABEEN ONGIZATE EMOZIONALA DIAGNOSTIKOA

2025eko apirila



AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	HELBURUAK.....	4
3	INFORMAZIO ITURRIAK	5
4	ARRASATEKO HAUR ETA NERABEAK: ARGAZKIA.....	10
4.1	Kopurua	10
4.2	Adina	11
4.3	Jatorria.....	12
4.4	Bizitokia	15
4.5	Osasuna	19
5	ONDOEZAK	35
5.1	Ondoezen eragile sistemikoak, jendarte mailakoak.....	37
5.2	Ondoezen eragileak haur eta nerabeengan.....	38
5.3	Ondoezak haur eta nerabeengan.....	40
5.4	Ondoezak zapalkuntzak jasaten dituzten haur eta nerabeengan	41
6	EKOSISTEMA	43
6.1	Osasun arloko gaixotasun eta nahasmenduei aurre egiteko ekimenak	44
6.2	Zaurgarritasun egoerei aurre egiteko ekimenak	46
6.3	Aisialdi osasuntsua, kultura, kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko ekimenak	48
6.4	Euskararen ikasketa laguntzeko ekimenak.....	50
6.5	Haur, nerabe eta gazteen parte hartze komunitarioa sustatzeko ekimenak.....	51
6.6	Pertsonen ahalduntzea eta parekidetasuna sustatzeko ekimenak	53
7	ONDORIOAK.....	56
8	ESKU-HARTZEKO EKINTZAK	69
9	ERANSKINAK	79

1 SARRERA

Haur eta nerabeen ongizate emozionala gaur egungo gizartearen kezka nagusi bat da. Gazteen iritzia eta ideia klase politikora gerturatzea helburu duen Gurea Geroa plataformak 2024an egindako ikerketaren arabera, Hego Euskal Herriko 16 eta 30 adin tarteko gazteen % 46k adierazi du bere egunerokoa ez dela batere (% 18) edo gutxi (% 28) zoriontsu sentitzen. Horrez gain, % 26k antsiolitikorik hartu du sekula.

Hala ere, egoera larria izanda ere, tresnak falta zaizkigu erakunde, familia, hezitzaile zein gizarte modura gaiari beharrezko erantzuna emateko: informazioa, esku-hartzeko neurriak, prebentziorako baliabideak...

Testuinguru horretan, Arrasateko udal gobernuak interesa eta kezka azaldu du herriko haurren eta nerabeen ongizate emozionala baldintzatzen duten arrazoen inguruan. Izan ere, udal gobernuaren ustea da herriko 6 eta 18 urte bitarteko biztanleen egoera bereziki zaurgarria dela egun. Udalak herritar horiei laguntzeko bere ekarpena egiteko borondatea du baina, horretarako, egoeraren irakurketa egiten laguntzeko baliabideak behar ditu.

Gauzak horrela, **6 eta 18 adin tarteko haur eta nerabeen ongizate emozionalean negatiboki eragiten duten ondoreen diagnostikoa** egiteko prozesua abiatu zuen udalak 2024ko azaroa eta 2025eko apirilera bitartean, horretarako Elhuyar kontratatuta. Egindako lanketaren bidez, helburua izan da gaur egungo egoera zein den zehatz mehatz ezagutzea; hori diagnosi batean jasotzea; eta bertan jasotako ondorioetan oinarrituta esku-hartzeko ekintzak irudikatzea, komunitatea modu zabalean inplikaturik.

Txosten hau egindako lanketaren emaitza da. Honako gaiak jasotzen ditu zehazki:

- Arrasateko haur eta nerabeen errealitatearen argazkia.
- Prozesuan zehar identifikatu diren haur eta nerabeen ongizate emozionala kaltetzen duten ondoreenak.
- Arrasateko haur eta nerabeen ongizate emozionala zaintzeko zerbitzu, programa baliabide eta azpiegituren ekosistema.
- Ondorioak.
- Ondoreen horiei aurre egiteko ekintzak.

Dokumentu hau 2025eko otsailean landu du Elhuyarrek.


2 HELBURUAK

Prozesu honen bidez Arrasateko Udalak erdietsi asmo izan dituen helburu nagusienak honakoak dira:



Helburu nagusia

Gaur egun Arrasaten 6 eta 18 urte artean dituzten **haur, nerabe eta gazteen ongizate emozionalaren egoeraren azterketa egitea.**



Helburu zehatzak

- Diagnostikoa osatzeko **datu kuantitatiboak eta kualitatiboak ustiatzea.**
- Datu horietan oinarrituta **ondorioen irakurketa egitea.**
- Identifikatutako problematiken aurrean **udalak esku-hartzeko ekintzak proposatzea**, komunitatea modu zabalean inplikatuta.



Zeharkako helburuak

- Lanketan haur eta nerabeen eremuak barnebiltzen dituen **eragile guztiak inplikatzeko**, eraldaketa soziala helburu: lagunak, gurasoak, irakasleak, hezitzaileak, gizartea...
- Gaiarekiko **informazioa, sentsibilizazioa eta ezagutza garatzea**, etorkizuneko gazteen eta gizartearen ongizatea bermatzeko.
- **Osasun mentalarekiko begirada aldatzea**, erruduntasunetik ihes egin, gizartearen eragina onartu eta gazteak ingurune egokiagoetan hazi eta hezteko ezagutzak partekatzeko.

3 INFORMAZIO ITURRIAK

Diagnostikoaren lanketan **lau informazio-iturri** ezberdin baliatu dira:



Lau informazio-iturri horietatik bildutako datuak elkarrekin josi dira "Arrasateko 6-18 adin tarteko haur eta nerabeen ongizate emozionalaren diagnostikoa" osatzeko eta horietatik ondorioztatutako ideia nagusiak aztertuta, Udalak aurrerantzean herritar horien bizi baldintzetan eta aukera parekidetasunean eragiteko esku-hartzeko zenbait ildo identifikatu dira, txostenaren azken atalean jasotzen direnak.

1

Datu kuantitatiboei dagokienez, honakoak izan dira ikerlanean aztertu direnak:

- Arrasateko haur eta nerabeen datu demografiko orokorrak, udal erroldako datuak oinarri izanda: biztanle kopuruak, adina, jaioterria, bizilekua....
- Osakidetzak emandako datuak: Lehen Mailako Arretako Unitatea (LMAU) Arrasaten duten eta aztertutako urte bakoitzean (2014-2024) 0 eta 20 urte bitarteko adina zuten erabiltzaileen datuak eman dituzte:
 - Erreferentziazko biztanleriaren inguruko datuak (kopuruak eta profila).
 - 2014 eta 2024 urteen artean honako patologiaren bat erregistratu zuten erabiltzaileak: gaixotasun mentalak, portaera nahasmenduak eta garapen neurologikoarekin lotutako patologiak.
 - Patologia eta nahasmendu horiei aurre egiteko psikofarmakoen preskripzioa eta bilakaera.
- Arrasateko udalaren adikzioen prebentziorako programak emandako datuak, haur eta nerabeen kontsumo-ohituren, kontsumitutako sustantzien eta adikzioa sor dezaketen praktiken inguruan.

Datu horiei dagokionez, informazio ahalik eta eguneratuena aztertzeko saiakera egin da. Hortaz, ahal izan den neurrian, denboran eskuragarri zegoen iturri gertukoena erabili da.

2

Elkarrizketei dagokienez, guztira 4 talde-elkarrizketa¹ egin dira ikerketarako informazio kualitatiboa eskuratzeko: elkarrizketatu bakoitzaren esperientzia oinarrituta zein diren haur eta nerabeen ongizate emozionala kaltetzen duten ondorez edo problematika nagusienak; problematika horiek pairatzen dituztenen profil zehatza; eta zein den ondorez horiei erantzuteko herri-mailako baliabideen ekosistema. Zehazki, honakoak izan dira talde elkarrizketa horietan parte hartu dutenak:

ARRASATEN HAUR ETA NERABEEKIN LANEAN DIHARDUTEN ERAGILE SOZIALAK

- **Eguna:** 2024ko abenduak 10.
- **Bilera lekua:** Kulturete.
- **Partaideak:** 8 emakumezko.
- **Ordezkatutako eragile sozialak:** Adingabeentzako egoitza zentroa, Katearen loturak, Altxa burua, FEDEPADUAL, ADAHIGI eta San Juan De Dios ospitalea.

OSAKIDETZA

- **Eguna:** 2025eko urtarrilak 15.
- **Bilera lekua:** Arrasateko ospitalea.
- **Partaideak,** 9 ordezkari (8 emakumezko eta gizonezko 1).
- **Ordezkaritza:** mediku egoiliarak; emagina; pediatriako erizaina; pediatra; ospitaleko gizarte langilea; komunitateko erizaina; anbulategiko erizaina.

ARRASATEKO IKASTETXEETAKO ORIENTATZAILEAK

- **Bilera eguna:** 2025eko urtarrilak 16.
- **Bilera lekua:** Kulturete.
- **Partaideak:** 8 ordezkari (7 emakumezko eta gizonezko 1).
- **Ordezkaritza:**
 - Arrasateko Herri Eskola: HH eta LHko bi kontsultore eta PT.
 - Arrasate BHI: DBHko 2. zikloko eta Batxilergoko orientatzailea; DBHko 1. zikloko orientatzailea; eta zuzendaritza-taldeko kide bat.
 - Arizmendi ikastola: LHko orientatzailea; HHn eta LHko lehen zikloko kontsultorea eta PTA; eta Hasierako Lanbide Heziketako arduraduna.

ARRASATEKO UDALEKO HAUR ETA NERABEEI ZUZENDUTAKO ZERBITZUETAKO HEZITZAILEAK

- **Bilera eguna:** 2025eko urtarrilak 16.
- **Bilera lekua:** Kulturete.
- **Partaideak:** 17 ordezkari (12 emakumezko eta 5 gizonezko).
- **Ordezkaritza:**
 - Adin txikikoen babeserako programa.
 - Txatxilipurdi: Ludoteka, Gaztelekua, EKKO programa.
 - Indarkeria matxista prebenitzeko programa (Daiteke aholkularitza).
 - Sexologia zerbitzuko hezitzailea.
 - Euskara erreforzu programako arduraduna.
 - Leintz Eskola Kiroleko arduradunak.
 - Arrasateko kirol saileko ordezkaria.
 - Kale-heziketa zerbitzuko hezitzaileak, Kalexka elkarteak

¹ Elkarrizketetara deituak izan diren hainbat eragilek ezin izan dute horietan parte hartu. Beren esperientzia ere biltzeko, online galdetegi bat ere bideratu zaie, elkarrizketetan landutako gaien inguruan galdeginez.

3

Haur eta nerabeen ahotsa: ikastetxeetan betetzeko galdetegia

Tokiko administrazioak haurren eta nerabeen ahotsa politika publikoetara eramaterakoan kontuan izan beharreko irizpideak Gipuzkoako Foru Aldundiak finkatuta ditu, 2023. urtean osatu zuen “Gipuzkoako administrazioek kalitatezko partaidetza prozesuak garatzeko zaindu beharreko aspektuak” dokumentuan. Horien arabera, beharrezkoa da haur eta nerabeen ahotsa politika publikoetara eramateko, besteak beste, honakoak kontutan hartzea:

- **Berezko egituretara gerturatu:** herritarrak erakartzetik, herritarrengana hurbiltzera pasa behar du administrazioak. Haurrak eta nerabeak dauden tokietara joatea beharrezkoa da. Haiena sentitzen duten espazioan seguruago sentituko dira, parte hartzeko askeago. Eta, aldi berean, partaidetza ariketak haien eskema eta logiketara gerturatu beharko dira, eta ez alderantziz.
- **Intereseko gaiak aukeratu:** landuko den gaiak haurren eta nerabeen bizitzetan eragin zuzena eduki ezean, haien behar eta interesekin lerrokatu ezean, oso zaila izango da konexio eraginkorrak eraikitzea. Zentzu horretan, haurrak eta nerabeak gaiaren aukeraketan parte aktibo eginaraztea arrakastarako gakoetako bat izango da.
- **Prozesuak, guneak eta pertsonak zaindu:** prozesuak denborarekin landu behar dira eta taldeak markatzen duen erritmoa errespetatu. Taldea etengabe entzun behar da eta zaintza kolektiboa bermatu; horrez gain, baita partaide bakoitzaren zaintza indibiduala ere, bakoitzaren singularitate edo berezitasunetan arreta jarri eta kontuan hartuz.
- **Komunikazioa xede-taldera egokitu:** deialdi generiko eta orokorretan oinarritutako estrategiak gainditu eta komunikazio-kanal indibidualizatu eta egokitueta pasa behar da. Interpelazio zuzena, hurbiletik egingo dena eta mezuei dimentsio indibiduala emango diena bilatu behar da. Apustua egin beharko da aurrez aurreko elkarrizketen edota izen-abizenekin zuzendutako gutunak bezalako teknikak erabiltzean. Estrategia komunikatiboek, familiei zuzenduta baino, haurrei eta nerabeei zuzendutakoak behar dute izan, haiek subjektu aktibo gisa hezteko ardura hartu nahi badugu.

Hortaz, irizpide horiek kontutan hartuta, diagnostiko honen baitan haur eta nerabeen ahotsa jasotzeko ikastetxeetan bete duten **galdetegiaren formula** baliatzea hobetsi da. Arrasaten LH5 mailatik DBH4ra arteko ikasle guztiei bideratu zaie eta ikastetxeetan tutoretza orduetan edo Proiektu Komunitarioak ikasgaietan bete dituzte 2025eko otsailean, modu guztiz anonimoan.

Zehazki honako gaien inguruan galdegin zaie ikasleei:

- Emozioak eta ongizate orokorra
- Eskolako eta familia-ingurune giroa.
- Lagunekin harremanak eta elkarbizitza.
- Autoestimua eta autopertzepzioa
- Aisialdiko jarduerak
- Estresa, presioa
- Loia, elikadura

Galdetegi horien emaitza zehatzak galdetegiaren emaitzen txostenean kontsulta daitezke.

4

Azkenik, herrian ongizate emozionalarekin lotutako ondoezengatik haurrak eta nerabeak artatzen dituzten psikologoek iritzia ere bildu da, haientzat berariaz online betetzeko galdetegia prestatuta.

Guztira Arrasaten lana egiten duten **2 psikologok** erantzun dute galdetegi hori.

4 ARRASATEKO HAUR ETA NERABEAK: ARGAZKIA


Txostenaren atal honetan Arrasateko haur eta nerabeen errealitateari erreparatuko diogu: zenbat herritar diren, zein den beren jatorria eta adina, non bizi diren, zein den beren osasun egoera... Horiek, gainera, herriko datu orokorrageekin ere parekatuko ditugu, ikerlan honetan aztergai ditugun herritarren errealitatea testuinguru globalagoan zein den ulertzeko.

Horretarako, 2024ko abenduan² Arrasaten erroldatuta zeuden herritarren datuak eta Osakidetzak 2025eko urtarrilean emandakoak³ izango ditugu aztergai, haur eta nerabe horien gaur egungo errealitatearen "argazkia" ateratzeko.

4.1 Kopurua

Arrasaten 2024ko abenduan 0 eta 18 adin tarteko **3.647 herritar bizi ziren**. Haur eta nerabe horien artetik, % 52 gizonezkoak ziren (1.884 herritar) eta % 48 emakumezkoak (1.763 herritar).

Arrasateko 0-18 adin tarteko biztanleak generoaren arabera



Iturria: Arrasateko udaleko errolda, 2024ko abendua

Kopuru hori biztanleria datu orokorrekin alderatuta, ikusi dezakegu 0-18 adin tarteko haur eta nerabeak biztanleria osoaren % 16,2 direla.

Arrasateko biztanleak orotara	22.469	♀	11.390	♂	11.079
Arrasateko 0-18 adin tarteko biztanleak orotara	3.647	♀	1.763	♂	1.884
% biztanleria osoarekiko	% 16,2				

Iturria: Arrasateko udaleko errolda, 2024ko abendua


² Zehazki 2024ko abenduaren 10ean.

³ 2014 urtetik 2024ra Arrasateko Lehen Arretan arreta jaso zuten 0 eta 20 adin tarteko biztanleei dagozkienak.

4.2 Adina

Arrasaten bizi diren haur eta nerabeen adinari erreparatuta, nabarmena da biztanle kopuruaren galera progresiboa. Salbuespenak salbuespen (2024an 14 urte zituen kinta, esaterako), urtero biztanle kopuruak behera egiten du eta azken urteetan, gainera, galera areagotzen ari da.

Arrasateko haur eta nerabeak, adinaren arabera




Iturria: Arrasateko udaleko errolda, 2024ko abendua

Datu horiek ondo interpretatzeko kontutan hartu behar da zenbaki horiek 2024ko abenduan erroldatuta zeuden 0 eta 18 adin tarteko herritar kopuru osoa jasotzen dutela. Hau da: Arrasaten jaiotako haurrez gain, adin tarte horretan herrira bizitzera etorri diren herritarrak ere barne hartuta daude dagokien zutabeetan.

Herrian jaiotako haurrei dagokienez, jaiotza-tasa gordinaren datuei erreparatuta (%) ikusi daiteke azken urteetan ia 3 puntuko beherakada izan dela. Hortaz, baieztatu daiteke Arrasatera bizitzera datozen familietako seme-alabek ez dutela jaiotza-tasaren beherakada orekatzen.

Arrasateko jaiotza-tasa gordinaren (%) bilakaera 2002tik 2023ra



Iturria: EUSTAT, Udalmap


4.3 Jatorria

Arrasateko haur eta nerabeen jatorria aztertzeko, hainbat datu hartu daitezke aintzat:

- **Nazionalitatea** edo herritartasun juridikoa: haur eta nerabe horiek zein ordenamendu juridikotako parte diren adierazten duen adierazlea.
- **Jaioterria**: haur eta nerabe horiek zein lurralde geografikotan jaio ziren.
- **Etorrera-lurraldea**: Arrasatetik kanpo jaio diren haur eta nerabeen kasuan, herrira etorri aurretik zein lurralde geografikotan bizi izan ziren.

Nazionalitateari dagokionez, Arrasaten erroldatuta dauden haur eta nerabe gehienek (%88) Estatu espainiarreko nazionalitatea dute. Espainiar herritartasuna aitortuta ez dutenen artean, berriz, honakoak dira nazionalitate ohikoenak:


Arrasaten nazionalitate espainiarra ez den beste bat duten haur eta nerabeen 10 nazionalitate ohikoenak



Iturria: Arrasateko udaleko errolda, 2024ko abendua

Haur eta nerabeen **jaioterriari** erreparatzen badiogu, berriz, ikusi dezakegu Gipuzkoan jaiotako herritar kopurua %79koa dela. Gainerako gehienak Kolonbian, Araban, Pakistanen, Hondurasen eta Marokon jaioak dira.


Arrasateko haur eta nerabeen jaioterri ohikoenak



Iturria: Arrasateko udaleko errolda, 2024ko abendua

Azkenik, Arrasatera bizitzera etorri diren haur eta nerabeak aurretik non bizi ziren aztertuta, honakoak dira **10 etorrera-lurralde ohikoenak**:

Arrasateko haur eta nerabeen etorrera-lurralde ohikoenak




Iturria: Arrasateko udaleko errolda, 2024ko abendua

Hortaz, Arrasatera bizitzera datozen haur eta nerabeak, orokorrean, inguruko herri eta hirietatik datoz, Kolonbiatik (Medellin) eta Pakistandik (Gujrat) zuzenean bizitzera etorritakoak ere nabarmentzen badira ere.

4.4 Bizitokia


Honakoak dira Arrasaten 0 eta 18 adin tarteko haur eta nerabeak bizi diren 10 kale ohikoenak:

Arrasateko 0 eta 18 adin tarteko haur eta nerabeak bizi diren 10 kale ohikoenak



Iturria: Arrasateko udaleko errolda, 2024ko abendua

Haur eta nerabe gehiago edo gutxiago zein kaleetan bizi diren jakiteko, ordea, garrantzitsua da kontutan hartzea nola banatzen den Arrasaten biztanleria kalez kale. Informazio hori aztertuta, honakoak dira ondorio esanguratsuenak:



Haur eta nerabe gutxiago

Elkano kalean, Gesalibar auzoan, Santa Teresa kalean, Garibai etorbidean, Aprendices kalean eta Jokin Zaitegi plazan haur eta nerabeen portzentajea biztanleria orokorrarekin alderatuta baxuagoa da.

Gauzak horrela, kale horietan biztanleria **bataz bestekoa baino zaharragoa** dela esan genezake.



Haur eta nerabe gehiago

Honako kaleetan, berriz, biztanleriaren banaketa orokorra kontutan hartuta, bizi diren haur eta nerabeen portzentajea altuagoa da: *Zerrajera kalean, Udalpe kalean, Nafarroa etorbidean, Martxoaren 8 kalean, Erguin kalean, Itxaropena plazan, Euskal Herria plazan* eta, bereziki, *Txaeta kalean*.

Gauzak horrela, kale horietan biztanleria **bataz bestekoa baino gazteagoa** dela esan genezake.

Horra konparaketa kalez-kale:

Kalea	Biztanleak orokorrean	0-18 adin tarteko biztanleak	Biztanle orokorren %	Haur eta nerabeen %	Aldea
ELKANO KALEA	574	57	2,6%	1,6%	-1,0%
GESALIBAR AUZOA	388	29	1,7%	0,8%	-0,9%
SANTA TERESA KALEA	447	48	2,0%	1,3%	-0,7%
GARIBAI ETORBIDEA	306	27	1,4%	0,7%	-0,6%
APRENDICES KALEA	145	4	0,6%	0,1%	-0,5%
JOKIN ZAITEGI PLAZA	257	23	1,1%	0,6%	-0,5%
FERRERIAS KALEA	506	67	2,3%	1,8%	-0,4%
KONTZEZINO KALEA	184	15	0,8%	0,4%	-0,4%
ANDALUZIA KALEA	157	11	0,7%	0,3%	-0,4%
USAETXE PLAZA	275	32	1,2%	0,9%	-0,3%
ZARUGALDE KALEA	558	78	2,5%	2,1%	-0,3%
OLARAN KALEA	131	9	0,6%	0,2%	-0,3%
ETXEAZPIA KALEA	148	12	0,7%	0,3%	-0,3%
URIBURU KALEA	431	58	1,9%	1,6%	-0,3%
ERREBUELTA KALEA	467	64	2,1%	1,8%	-0,3%
UARKAPE KALEA	165	15	0,7%	0,4%	-0,3%
OTALORA LIZENTZIADUNA KALEA	340	44	1,5%	1,2%	-0,3%
KURTZETXIKI PLAZA	90	4	0,4%	0,1%	-0,3%
GIPUZKOA ETORBIDEA	445	63	2,0%	1,7%	-0,3%
MAALAKO ARRABALA	198	23	0,9%	0,6%	-0,3%
ZERKAOSTETA KALEA	109	9	0,5%	0,2%	-0,2%
LORAMENDI KALEA	361	50	1,6%	1,4%	-0,2%
OKENDO KALEA	163	18	0,7%	0,5%	-0,2%
JOSE MARIA EGUREN PLAZA	118	11	0,5%	0,3%	-0,2%
ALDAIGAIN KALEA	140	15	0,6%	0,4%	-0,2%
PABLO URANGA KALEA	279	38	1,2%	1,0%	-0,2%
GIPUZKOAKO FORUEN PLAZA	146	17	0,6%	0,5%	-0,2%
ARAMAIO KALEA	109	11	0,5%	0,3%	-0,2%

MAISU ARANBARRI PLAZA	83	7	0,4%	0,2%	-0,2%
SAILUENTE PLAZA	218	29	1,0%	0,8%	-0,2%
MAISU GURIDI KALEA	144	17	0,6%	0,5%	-0,2%
BIZKAIA ETORBIDEA	290	41	1,3%	1,1%	-0,2%
URIBARRI AUZOA	34	0	0,2%	0,0%	-0,2%
DOCTOR BAÑEZ KALEA	452	68	2,0%	1,9%	-0,1%
ARRASATE PASEALEKUA	310	45	1,4%	1,2%	-0,1%
KALEALDEA	136	17	0,6%	0,5%	-0,1%
SAN BIXENTE FERRER KALEA	37	1	0,2%	0,0%	-0,1%
DOCTOR CORDOBA Y ORO PLAZA	141	18	0,6%	0,5%	-0,1%
ELIZALDE KALEA	48	3	0,2%	0,1%	-0,1%
MAITENA KALEA	183	25	0,8%	0,7%	-0,1%
NAVAS DE TOLOSA KALEA	132	17	0,6%	0,5%	-0,1%
ITURRIOTZ KALEA	347	52	1,5%	1,4%	-0,1%
NAO DE SANTIAGO KALEA	63	6	0,3%	0,2%	-0,1%
URIBARRI ETORBIDEA	143	19	0,6%	0,5%	-0,1%
ZALDIBAR KALEA	24	0	0,1%	0,0%	-0,1%
KALE TXIKIA	30	1	0,1%	0,0%	-0,1%
SANTA MARINA KALEA	529	82	2,4%	2,2%	-0,1%
SAN JOSEPE KALEA	196	28	0,9%	0,8%	-0,1%
LAPURDI KALEA	177	25	0,8%	0,7%	-0,1%
BEDOÑA AUZOA	78	9	0,3%	0,2%	-0,1%
AGERRE KALEA	213	31	0,9%	0,9%	-0,1%
URIBE AUZOA	458	71	2,0%	1,9%	-0,1%
MUNAR KALEA	131	18	0,6%	0,5%	-0,1%
GARRO JENERALA KALEA	123	17	0,5%	0,5%	-0,1%
ALFONSO X JAKINTSUA PLAZA	98	13	0,4%	0,4%	-0,1%
GARAGARTZA AUZOA	134	19	0,6%	0,5%	-0,1%
AZOKA KALEA	29	2	0,1%	0,1%	-0,1%
ARIMAZUBI PLAZA	22	1	0,1%	0,0%	-0,1%
IPARRAGIRRE PLAZA	46	5	0,2%	0,1%	-0,1%
LARREA PLAZA	169	25	0,8%	0,7%	-0,1%
HONDARRIBIA KALEA	27	2	0,1%	0,1%	-0,1%
JAUREGIBARRIA KALEA	199	30	0,9%	0,8%	-0,1%
ISTIZABAL-GARAGARTZA	69	9	0,3%	0,2%	-0,1%
MUSAKOLA AUZOA	32	3	0,1%	0,1%	-0,1%
SEBER ALTUBE PLAZA	43	5	0,2%	0,1%	-0,1%
UDALA AUZOA	36	4	0,2%	0,1%	-0,1%
OLARTE KALEA	169	26	0,8%	0,7%	0,0%
IGNACIO ZULOAGA KALEA	76	11	0,3%	0,3%	0,0%
LARRAGAIN KALEA	191	30	0,9%	0,8%	0,0%
GOIRU KALEA	5	0	0,0%	0,0%	0,0%
ISASI KALEA	4	0	0,0%	0,0%	0,0%
DOCTOR BOLIBAR KALEA	102	16	0,5%	0,4%	0,0%
LEINTZIBAR KALEA	114	18	0,5%	0,5%	0,0%
ERREKALDE KALEA	9	1	0,0%	0,0%	0,0%

ZEHARKALE ESTALIA	15	2	0,1%	0,1%	0,0%
SAN ANDRES AUZOA	39	6	0,2%	0,2%	0,0%
DONEZTEBE PORTUKO KALEA	193	31	0,9%	0,9%	0,0%
17 EMAKUMEAK KALEA	8	1	0,0%	0,0%	0,0%
SAN ANDRES KALEA	14	2	0,1%	0,1%	0,0%
ZURGIN KANTOIA	14	2	0,1%	0,1%	0,0%
ALDAI KALEA	110	18	0,5%	0,5%	0,0%
MEATZERREKA AUZOA	48	8	0,2%	0,2%	0,0%
KANPATORPEA	11	2	0,0%	0,1%	0,0%
GAZTELUONDO KALEA	52	9	0,2%	0,2%	0,0%
GALIZIA KALEA	93	16	0,4%	0,4%	0,0%
ANTSO ABARKA KALEA	160	27	0,7%	0,7%	0,0%
OLARTE KANTOIA	24	5	0,1%	0,1%	0,0%
ZALDUSPE KALEA	40	8	0,2%	0,2%	0,0%
MARKOALDE KALEA	21	5	0,1%	0,1%	0,0%
ETXEOSTEA KALEA	107	19	0,5%	0,5%	0,0%
ALTAMIRAZPI KALEA	45	9	0,2%	0,2%	0,0%
LEGARRA PLAZA	39	9	0,2%	0,2%	0,1%
ZUBEROA KALEA	45	10	0,2%	0,3%	0,1%
ERGUIÑARRO KALEA	59	14	0,3%	0,4%	0,1%
ARABA ETORBIDEA	465	80	2,1%	2,2%	0,1%
ARAGOIA KALEA	80	18	0,4%	0,5%	0,1%
ERDIKO KALEA	305	55	1,4%	1,5%	0,2%
ANBOTO KALEA	194	38	0,9%	1,0%	0,2%
BITERI ETORBIDEA	111	25	0,5%	0,7%	0,2%
JOSE LUIS IÑARRA PASEALEKUA	393	71	1,7%	1,9%	0,2%
OÑATI KALEA	46	15	0,2%	0,4%	0,2%
JUAN CARLOS GUERRA PLAZA	93	23	0,4%	0,6%	0,2%
ELMA KALEA	89	23	0,4%	0,6%	0,2%
MAKATZENA KALEA	605	107	2,7%	2,9%	0,2%
OBENERREKA KALEA	265	54	1,2%	1,5%	0,3%
DEBA ETORBIDEA	132	33	0,6%	0,9%	0,3%
LEGARGAIN KALEA	347	68	1,5%	1,9%	0,3%
ETXETXIKIAK KALEA	146	38	0,6%	1,0%	0,4%
ZERRAJERA KALEA	584	113	2,6%	3,1%	0,5%
UDALPE KALEA	538	110	2,4%	3,0%	0,6%
NAFARROA ETORBIDEA	313	77	1,4%	2,1%	0,7%
MARTXOAREN 8 KALEA	203	61	0,9%	1,7%	0,8%
ERGUIN KALEA	613	130	2,7%	3,6%	0,8%
ITXAROPENA PLAZA	277	88	1,2%	2,4%	1,2%
EUSKAL HERRIA PLAZA	550	144	2,4%	3,9%	1,5%
TXAETA KALEA	1052	354	4,7%	9,7%	5,0%

4.5 Osasuna

Arrasaten bizi diren haur eta nerabeen osasun-egoerari erreparatzeko Osakidetzak 2025eko urtarilean emandako datuak hartu dira aintzat.


Osakidetzak datuak "Osasun mentalaren egoera Arrasateko gazteen artean (I bertsioa)⁴" txostenean eman ditu. Lehen Mailako Arretako Unitatea (LMAU) Arrasaten duten eta aztertutako urte bakoitzean (2014-2024) 0 eta 20 urte bitarteko adina zuten erabiltzaileen datuak eman dituzte, honakoak, zehazki:

- Erreferentziazko biztanleriaren inguruko datuak (kopuruak eta profila).
- 2014 eta 2024 urteen artean honako patologiarekin bat erregistratu zuten erabiltzaileak: gaixotasun mentalak, portaera nahasmenduak eta garapen neurologikoarekin lotutako patologiak.
- Patologia eta nahasmendu horiei aurre egiteko psikofarmakoen preskripzioa eta bilakaera.

Horien azterketa eginda, honakoa da Arrasaten gaixotasun mentalen bat, portaera nahasmenduren bat edo garapen neurologikoarekin lotutako patologiarekin bat duten haur eta nerabeen errealitatea:

Diagnosticako kopurua

Arrasateko Lehen Mailako Arretako Unitatean osasun mentaleko patologia edo nahasmenduren batekin diagnostikatutako 0 eta 20 adin tarteko haur eta nerabeen % kopurua eta eboluzioa 2014 eta 2024 artean



Iturria: Osakidetza, 2025ko urtarila


⁴ Azterketan urte bakoitzeko abenduaren 31n erregistratutako kasuak hartuko dira kontuan. Beraz, azterketa bat etorriko da 2015 eta 2025 urteen artean erregistratutako prebalentziarekin. Prebalentzia egiaztatzeko, kontuan hartu dira Lehen Mailako Arretan (LM), Arreta Espezializatuan (EZB) edo ospitalizazioan urteko abenduaren 31 baino lehen erregistratutako diagnostikoak.

Lehen Mailako Arretako Unitatea (LMAU) Arrasaten duten eta aztertutako urtean 0 eta 20 urte bitarteko adina zuten erabiltzaileak aztertu dira. Hala, 2015ean erregistratutako prebalentzia bat etorriko da 1994 eta 2014 urteen artean jaiotako pazienteekin, 2014ko abenduaren 31n aurretiko diagnostikoak erregistratuta; 2015ean, berriz, 1995 eta 2015 urteen artean jaiotakoekin, eta abar.

Kontuan izan behar da datuen bilakaera atzera begira aztertzen dela. Beraz, azken 10 urteetan mugikortasuna izan duten eta jarraipena egin ezin dakieken pazienteen artean aldaketa txiki batzuk egon daitezke. Hala ere, uste da aldaketa horiek ez direla esanguratsuak biztanleria osoan.

Aintzat hartutako patologiak identifikatzeko, Gaixotasunen Nazioarteko Kodifikazioaren (GNS-10) 10. bertsioa erabili da. Aintzat hartutako kodetzearen xehetasun-maila bat dator diagnostiko-kategoriaren mailarekin (hiru kodetze-digitu).

Arrasateko Lehen Mailako Arretako Unitatean osasun mentaleko patologia edo nahasmenduren batekin diagnostikatutako 0 eta 20 adin tarteko haur eta nerabeen kopurua eta eboluzioa 2014 eta 2024 artean, urte bakoitzeko haur eta nerabe kopuru osoarekin alderatuta



Iturria: Osakidetza, 2025ko urtarila


Datuak aztertuta ikusi daitekeen bezala, Lehen Mailako Arretako Unitatea Arrasaten duten haur eta nerabe kopuruak azken 10 urteotan behera egin badu ere (datua bat dator jaiotza-tasak eta erroldako datuak aztertuta hauteman daitekeen joerarekin), osasun mentalaren eremuko gaixotasun edo patologien diagnostiko kopuruak etengabe gora egin du, ia bikoizteraino.

Gainera, aurrera begira joera hori bere horretan mantenduko dela aditzera ematen dute datuek: biztanleria gazte kopuruak behera egingo du eta diagnostikoek, aldiz, gora.

Diagnostikatuen profila


Arrasaten gaixotasun mentalen bat, portaera nahasmenduren bat edo garapen neurologikoarekin lotutako patologiaren bat duten haur eta nerabeen **generoa**, **adina** eta **familiaren maila sozioekonomikoa** zein den aztertuta, berriz, honakoak dira datuak:

Arrasateko Lehen Mailako Arretako Unitatean osasun mentaleko patologia edo nahasmenduren batekin diagnostikatutako 0 eta 20 adin tarteko haur eta nerabeen % eta eboluzioa 2014 eta 2024 artean, generoaren arabera




Iturria: Osakidetza, 2025ko urtarrila

Arrasateko Lehen Mailako Arretako Unitatean osasun mentaleko patologia edo nahasmenduren batekin diagnostikatutako 0 eta 20 adin tarteko haur eta nerabeen % eta eboluzioa 2014 eta 2024 artean, adinaren arabera



Iturria: Osakidetza, 2025ko urtarrila

Arrasateko Lehen Mailako Arretako Unitatean osasun mentaleko patologia edo nahasmenduren batekin diagnostikatutako 0 eta 20 adin tarteko haur eta nerabeen % eta eboluzioa 2014 eta 2024 artean, maila sozioekonomikoaren arabera



Iturria: Osakidetza, 2025ko urtarrila

Datu horiek aztertuta, honakoak dira ideia aipagarriak:

- **Generoari** dagokionez, gaixotasun mentalen bat, portaera nahasmenduren bat edo garapen neurologikoarekin lotutako patologiaren bat duten gehienak gizonezkoak badira ere, azken 10 urteetako joerari erreparatuta nabarmena da diagnostikatutako emakumezko kopurua etengabe ari dela gora egiten.
- **Adinari** erreparatuta, berriz, joera aldaketa da datu azpimarragarriena: gaur egun 15-20 adin tarteko nerabeak dira diagnostiko gehien dituztenak, orain 10 urte ez bezala: orduan 11-15 adin tartekoak ziren. 6-10 adin tarteko haurren kasuan, gainera, diagnostiko kopuruak behera egin du.
- Azkenik, **maila sozioekonomikoari** dagokionez, joera aldaketa ere eman da: orain 10 urte familia “aberatsetako” haur eta nerabeak ziren gehien diagnostikatzen zirenak. Horien ehunekoak urtero beherantz egin du eta, gaur egun, “erdi mailako” familietako haur eta nerabeak dira diagnostikatuen artean nagusi.

Patologia eta nahasmendu motak


Patologia eta nahasmendu motei dagokienez, Lehen Mailako Arretako Unitatea Arrasaten duten haur eta nerabeei azken 10 urteotan honako patologia motak diagnostikatu zaizkie eta honakoa izan da diagnostiko horien eboluzioa denboran:

Kodea	Patologia eta nahasmendu mota	Eboluzioa (%tan)		
		Diagnostikatuak 2014an	Diagnostikatuak ⁵ 2024an	Aldea
A	Gaixotasun fisiologiko ezagunek eragindako trastorno mentalak	0,2	0,1	-0,1
B	Buru- eta portaera-arazoak, substantzia psikoaktiboak kontsumitzeagatik	0,6	0,7	+0,1
C	Eskizofrenia, trastorno eskizotipikoa, trastorno delirantea eta gogo-aldartearekin zerikusirik ez duten beste trastorno psikotiko batzuk	0,1	0,7	+0,6
D	Gogo-aldartearen trastornoak [afektiboak]	0,2	1,2	+1
E	Antsietate-nahasmendua, disoziazio-nahasmendua, estresarekin eta psikotikoak ez diren beste nahasmendu mental somatomorfo batzuekin lotua	1,8	4,8	+3
F	Trastorno fisiologikoekin eta faktore fisikoekin lotutako portaera-sindromeak	0,8	1,9	+1,1
G	Helduaren nortasun- eta portaera-arazoak	1	1,4	+0,4
H	Adimen-desgaitasuna	0,3	0,7	+0,4
I	Garapenaren nahaste orokorrak eta espezifikokoak	1,2	4,9	+3,7
J	Hautzaroan eta nerabezaroan hasten diren jokabide-arazoak eta trastorno emozionalak	7,4	12,4	+5
K	Zehaztu gabeko trastorno mentala	0	0,1	+0,1

⁵ Bi zutabe hauetako datuek honakoari egiten diote erreferentzia: urte bakoitzean Arrasaten zegoen 0-20 adin tarteko biztanleria osoa kontutan hartuta, ehuneko zein kopuruk zuen diagnostikoren bat patologia edo nahasmendu mota bakoitzari dagokionez.

Honakoa da kasu kopuru horien irudikapen grafikoa:

Arrasaten 2014 eta 2024 artean 0 eta 20 adin tarteko haur eta nerabeei diagnostikatutako osasun mentaleko patologia kopurua, motaren arabera



Iturria: Osakidetza, 2025ko urtarila

Gauzak horrela, nabarmena da zenbateraino egin duen gora azken 10 urteotan osasun mentalaren eremuko patologia eta nahasmendu jakin batzuen diagnostikoak haur eta nerabeen artean, honakoak, bereziki:


Hautzaroan eta nerabezaroan hasten diren jokabide-arazoak eta trastorno emozionalak	+5
Garapenaren nahaste orokorrak eta espezifikoak	+3,7
Antsietate-nahasmendua, disoziazio-nahasmendua, estresarekin eta psikotikoak ez diren beste nahasmendu mental somatomorfo batzuekin lotua	+3
Trastorno fisiologikoekin eta faktore fisikoekin lotutako portaera-sindromeak	+1,1
Gogo-aldartearen trastornoak [afektiboak]	+1
Helduaren nortasun- eta portaera-arazoak	+0,4
Adimen-desgaitasuna	+0,4

Psikofarmakoen kontsumoa

Patologia eta nahasmendu horiei erantzuteko haur eta nerabeek hartzen dituzten psikofarmakoei dagokienez, Lehen Mailako Arretako Unitatea Arrasaten duten haur eta nerabeei azken 10 urteotan honako farmakoak diagnostikatu izan zaizkie eta honakoa izan da horien eboluzioa denboran:

Kodea	Psikofarmako mota	Xehetasunak	Eboluzioa		
			Kopurua 2014an	Kopurua 2024an	Aldea
M	Antiepileptikoak	Konbultsioei edo eraso epileptikoei aurre egiteko, aurrea hartzeko edo eteteko farmakoa da.	11	65	+54
N	Antipsikotikoak	Droga psikoaktibo bat da, psikosiak kudeatzeko erabilia; eskizofrenia eta desoreka bipolarra, zehazki.	39	120	+81
O	Antsiolitikoak	Antsiolitikoak Nerbio Sistema Zentrala inhibitu eta eragin antsiolitikoa lortzea helburu duten sendagaiak dira.	88	584	+496
P	Hipnotikoak eta lasaigarriak	Lasaigarriek jarduera gutxitzen dute, hartzaiaren kitzikapena eta lasaitasuna moteltzen ditu; eta hipnotiko batek, logura sortzen duen heinean, lo egiten hastea eta mantentzea errazten du.	2	49	+47
Q	Antidepresiboak	Sendagai psikoaktibo familia handi bat dira. Batik bat erabiltzen dira depresio asalduretan, baina baita bestelakoetan ere, distimian, nahasmendu obsesibo-konpulsiboan, min kronikoan, elikadurarekin eta loarekin lotutako arazoetan eta abar.	38	130	+92
R	Psikoestimulatzailerak, AGHA eta nootropikoentzat	Arreta galeragatiko eta hiperaktibitateagatiko asaldura tratatzeko baliatzen diren medikamentuak.	156	108	-48
S	Psikoleptikoak eta psikoanaleptikoak batera		0	0	0
T	Dementziaren aurkako sendagaiak		0	0	0
U	Parasimpatikomimetikoak	Nerbio-sistema zentrolean eragina duten medikamentuak	0	0	0
V	Adikzio-nahasmenduetan erabilitako sendagaiak		1	1	0
W	Bertigoaren aurkako sendagaiak		0	8	8
X	Nerbio-sistemako beste sendagai batzuk		0	0	0

Arrasaten 2014 eta 2024 artean 0 eta 20 adin tarteko haur eta nerabeei preskribatutako psikofarmako kopurua, motaren arabera



Iturria: Osakidetza, 2025ko urtarila

Kasu honetan ere, osasun mentalaren eremuko patologia eta nahasmendu jakin batzuen diagnostikoak haur eta nerabeen artean azken 10 urteotan izandako gorakadari lotuta, nabarmena da zenbait psikofarmako familietako sendagaien kontsumoaren gorakada, antsiolitikoena delarik esanguratsuen: 2014an 0 eta 20 urte arteko 88 pazientek diagnostikatuta izatetik 2024an 584 pazientek izateraino.

Antsiolitikoak	<i>Antsiolitikoak Nerbio Sistema Zentrala inhibitu eta eragin antsiolitikoa lortzea helburu duten sendagaiak dira.</i>	+496
Antipsikotikoak	<i>Droga psikoaktibo bat da, psikosiak kudeatzeko erabilia; eskizofrenia eta desoreka bipolarra, zehazki.</i>	+81
Antidepresiboak	<i>Sendagai psikoaktibo familia handi bat dira. Batik bat erabiltzen dira depresio asalduretan, baina baita bestelakoetan ere, distimian, nahasmendu obsesibo-kompulsiboan, min kronikoan, elikadurarekin eta loarekin lotutako arazoetan eta abar.</i>	+92
Antiepileptikoak	<i>Konbulsioei edo eraso epileptikoei aurre egiteko, aurrea hartzeko edo eteteko farmakoa da.</i>	+54
Hipnotikoak eta lasaigarriak	<i>Lasaigarriek jarduera gutxitzen dute, hartzailearen kitzikapena eta lasaitasuna moteltzen ditu; eta hipnotiko batek, logura sortzen duen heinean, lo egiten hastea eta mantentzea errazten du.</i>	+47

Aldiz, bada positiboki esanguratsua den beste datu bat ere: Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko Asaldura tratatzeko baliatzen diren medikamentuen preskripzioek, apala bada ere, beherakada jasan dute.

Psikoestimulatzaileak, AGHA eta nootropikoentzat	Arreta galeragatiko eta hiperaktibitateagatiko asaldura tratatzeko baliatzen diren medikamentuak.	-48
---	--	------------


Gauzak horrela, gaur egun Arrasaten 0 eta 20 urte bitarteko haur eta nerabeek gehien hartzen dituzten psikofarmakoak **antsiolitikoak** (alde oso handiarekin), **antipsikotikoak** eta **antidepresiboak** dira. Jarraian datoz **Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko Asaldura tratatzeko baliatzen diren medikamentuak**, orain 10 urte ohikoenak zirenak eta orain 4. postuan daudenak. Eta, horrez gain, **antiepileptikoek** eta **hipnotiko edo lasaigarriek** ere igoera esanguratsua izan dute aztertutako denboran zehar.

Substantzien kontsumoa


Arrasateko udalak adikzioen prebentziorako programa abian du. Programa horren baitan urtero herriko ikastetxeetako DBHko eta Batxilergoko lehen mailako ikasleei galdetegia zuzentzen zaie, beren kontsumo-ohituren inguruan galdetzeko. Galdetegia modu anonimoan erantzuten dute ikasleek, beren egunerokoan zein substantzia kontsumitzen dituzten, zein maiztasunekin, etab. aitortuaz.

2024-2025 ikasturtean, esaterako, inkesta 938 ikaslek erantzun zuten: 442 gizonezko; 485 emakumezko; eta 11 ez-bitarrak. Ikasle horien ikastetxe eta mailari dagokionez, honakoak dira datuak:

*Inkesta erantzun duten ikasleak
ikastetxearen arabera*




*Inkesta erantzun duten ikasleak
ikas-mailaren arabera*



Iturria: Arrasateko adikzioen prebentzio programa 2024-2025

Galdetegi horietan aitortutako datuak kontutan hartuta, jakin dezakegu zer nolakoak diren adin-tarte horretako (12-17) ikasleek kontsumitzen dituzten substantziak:

Inkesta erantzun duten ikasleek noizbait kontsumitu dituztela aitortzen duten substantzia-motak




Iturria: Arrasateko adikzioen prebentzio programa 2024-2025

Hala ere, kontsumo ohitura horiei generoaren arabera erreparatuta, aldea dago haur eta nerabe horiek kontsumitzen dituztela aitortzen duten preskribatu gabeko sustantziei dagokienez:

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
1	Edari energetikoak	Alkohola
2	Alkohola	Edari energetikoak
3	Baperra	Baperra
4	Tabakoa	Tabakoa
5	Marihuana	Psikofarmakoak

Preskribatu gabeko substantzia horiek zein maiztasunekin kontsumitzen dituzten galdeginda, berriz, honakoak dira datuak:

Inkesta erantzun duten ikasleek kontsumitzen dituzten substantziak eta maiztasuna




Iturria: Arrasateko adikzioen prebentzio programa 2024-2025

Honakoak dira, hortaz, joera nagusienak substantzia bakoitzari lotuta:

Gehien kontsumitutako substantziak	Joera ohikoena
Edari energetikoak	Noizbait, behin bakarrik probatu dut, astero, hilabetero.
Alkohola	Noizbait, Urtero, behin bakarrik probatu dut.
Baperra	Behin bakarrik probatu dut, noizbait.
Tabakoa	Behin bakarrik probatu dut, noizbait.
Marihuana	Behin bakarrik probatu dut, noizbait.

Adikzioa sortu dezaketen substantzia edo jarduerak eskuragarri dituzten edo ez galdeginda, berriz, honakoak direla berentzat eskuragarri aitortzen dute inkesta erantzun duten nerabeek:

Inkesta erantzun duten ikasleentzat eskuragarrien diren substantziak edo jarduerak




Iturria: Arrasateko adikzioen prebentzio programa 2024-2025

Adikzioa eragin dezaketen bestelako jardueretara sarbidea

Gainerakoan, prebentzio programan adikzioa eragin dezaketen bestelako jarduera batzuen inguruko ohituren inguruan ere galdegiten zaie ikasleei, hala nola: jokia, pornografiaren kontsumoa, bideojokoak, etab.

Horiei lotuta, honakoak dira datu esanguratsuenak:

Adikzioa eragin dezaketen jardueretara sarbidea




Iturria: Arrasateko adikzioen prebentzio programa 2024-2025

Kasu honetan ere, alde nabarmena dago generoaren arabera: mutil gehiagok aitortzen dute bideo jokoetara jolasten dutela, diruarekin modu fisikoan edo online jokatzera dutela eta, batik bat, pornografia kontsumitzen dutela; nesken kasuan, berriz, gehiago dira erosketak online egiten dituztela diotenak.

Adikzioa eragin dezaketen jarduerak	Mutilak	Neskak
Bideo jokoetara jolastea	423	389
Erosketak online egitea	273	305
Pornografia ikustea	102	21
Dirua jokatzera modu fisikoan	58	8
Dirua jokatzera online	31	5

Jarduera horien maiztasunari erreparatuta, berriz, honakoak dira datuak:


Adikzioa eragin dezaketen jardueren maiztasuna



Iturria: Arrasateko adikzioen prebentzio programa 2024-2025

Eta, gainerakoan, jarduerak horiek egiten dituztela aitortzen dutenek, honako denbora pasatzen dute bakoitzarekin:

Adikzioa eragin dezaketen jardueretan pasatako bataz-besteko denbora



Iturria: Arrasateko adikzioen prebentzio programa 2024-2025

5 ONDOEZAK

Diagnostikoaren bosgarren atal honetan jasotzen da zein diren prozesuan zehar informazio-iturri ezberdinak baliatuta identifikatu diren **haur eta nerabeen ongizate emozionala kaltetzen duten ondoez edo problematika nagusienak eta horiek eragiten dituzten faktoreak**.

Zehazki, honakoak izan dira atal honetako informazioa osatzeko baliatu ditugun informazio-iturriak: galdetegia bete duten haur eta nerabeen erantzunak; berekin lana egiten duten hezitzaileen eta ikastetxeetako arduradunen iritziak; osasun-alorrean haur eta nerabeak artatzen dituzten profesional eta boluntarioen esperientzia eta jakituria; eta haiei zuzenduriko zerbitzu, programa eta jarduera anitzetako sustatzaile eta hezitzaileen begirada.

Hala ere, atal honetan biltzen diren edukien mamiaren eta antolaeraren inguruan bi zehaztapen egitea beharrezkoa da:

- **Batetik, mamiari edo edukiei lotuta**, Arrasateko haur eta nerabeen ongizate emozionala baldintzatzen duten problematikak errealitate oso konplexu bat izanik, horietariko bakoitzak azterketa sakona egiteko baldintzak eskaintzen ditu: dimentsioa, eragina populazioan, konparaketa beste lurralde batzuekin...

Azterketa honetan fokua ikuspegi orokorrean jartzea izan da helburua; errealitatea berau pairatu edo ezagutzen duten biztanle batzuen betaurrekoetatik aztertzea; eta beren iritzitan haur eta nerabeek pairatzen dituzten ondoezak eta horien eragileak zein diren izendatzea eta multzokatzea.

Gauzak horrela, txostenaren atal honetan bildutako ikuskerak bere horretan jaso ditugu, aztertu ditugun pertsonen adierazi modura. Ondorioen atalean, berriz, ikuskera horiek datu objektiboekin erkatuta egoeraren gaineko analisi orokorra egin dugu.

- **Bestetik, edukien antolaketari dagokionez**, ikerlan honek errealitate konplexu bat erakusten digu, sistemikoa eta lokala, zapalkuntzak eta pribilegioak, indibiduala eta kolektiboa nahasten diren testuinguru bat, hain zuzen ere.

Laburbilduz⁶, esan dezakegu haur eta nerabeen ongizate emozionala kaltetzen duten problematikek ez dietela haur eta nerabeei soilik eragiten, gizarte osoari baizik; baina gizarte mailako problematika horiek haur eta nerabeengan ondorio espezifiko batzuk dituztela (profil jakin bateko haur eta nerabeengan bereziki nabarmentzen direnak).

Errealitate hori irudikatzeko eta edukiak horren arabera antolatzeko **tipularen** metafora baliatu dugu, multzoak bata bestearen barruan geruzaka irudikatuaz:

⁶ Ideia hau ondorioen atalean sakontasunez garatuko dugu.



5.1 Ondoezen eragile sistemikoak, jendarte mailakoak

Gizartean pertsona gehienengan ondoezak eragiten dituzten **eragile sistemiko** batzuk daude, egun bizi garen sistema ekonomiko eta sozialaren arauak eta erabaki politikoei oso lotuta. Honakoak izan dira egindako lanketan identifikatutakoak:

- DENBORA FALTA
- PRODUKTIBISMOA
- BIZITZAREN ABIADURA BIZIA
- EXIGENTZIA-MAILA ALTUA
- AISIALDI OHITURETAN, DROGEN (LEGEZKO ZEIN LEGEZ KANPOKOAK) PRESENTZIA NABARMENA
- OSASUN ARRETA PUBLIKOAN GABEZIAK (buru-osasunari lotuta, bereziki).
- KAPAZITISMOA (desgaitasunen bat duten pertsonen aurkako diskriminazio-modua edo gizarte-aurreiritzia).
- SISTEMA KAPITALISTA.
- Etab.

Eragile sistemiko horien artean daude, baita ere, eta bereziki nabarmentzen dira, pertsonok pairatzen ditugun ZAPALKUNTZAK edo diskriminazio egoerak.

Horiek pertsonok ditugun ezaugarri anitzen gainean gizarteak egiten duen irakurketak eragiten dituzte, ezaugarri batzuk hobetsi eta besteak baztertzen direlako arrazoi historiko, kultural eta sozialei lotuta: generoa, jatorria, azalaren kolorea, hizkuntza, identitate sexuala, gaitasunak... Horietan bakoitzak duen kokapenaren arabera kokatzen da pertsona oro arauak (*normak*, *pribilegioak*) edo zapalkuntzan. Eta haur eta nerabeengan ere, noski, erreproduzitzen dira horiek, aurreraxeago aztertuko dugun moduan.

Hala ere, kontutan hartu behar da desberdinkeria horiek elkarrekin harremanetan daudela: pertsona berdinarengan elkarbizi daitezke zapalkuntza eta pribilegioa.

5.2 Ondoezen eragileak haur eta nerabeengan

Eragile sistemiko horiek guztiek, hortaz, haur eta nerabeengan, berariazko forma hartzen dute eta haiek pairatzen dituzten ondoezen eragile bilakatzen dira:

Hezkuntzaren-eremuan...

- Presio akademikoa.
- Lehiakortasuna.
- Hezkuntza metodologietan aldaketa: ikaslearen borondatea eta nahiaren gailentzea, arduraren gainetik.
- Balioak baino, edukiak hobestea.
- Familian eta ikastetxean bidelagun edo erreferente falta.
- Auto-exigentzia eta kanpo-exigentzia maila altua (kanpotik, familiatik).

Harreman sozialei lotuta...

- Botere harremanak lagun taldeetan (kuadrillak): rolak, lidergo eredu ez-osasuntsuak...
- Testuinguru abegikor falta harreman sanoetarako.
- Etiketak.
- Enpatia falta.
- Irudi pertsonalaren gehiegizko balorazioa.
- Eremu pribatua harremanak izateko ohituraren orokortzea: etxean, lokaletan...
- Materiala den horri gehiegizko balioa aitortzea.

Pantailen eta sare sozialen erabilerari lotuta...

- Errealitatearekiko deskonexioa.
- Gehiegizko estimulak.
- Informazio falta eta saturazioa, aldi berean.
- Konparaketak.
- Erreferente osasuntsuen falta.
- Espektatiba faltsuak edo gehiegizkoak.
- Erabilera goiztiarra.
- Gurasoen ardura-hartze falta.
- Pornografia: eredu bortitzak, kontsumo goiztiarra...
- Filtro falta.

Emozioen kudeaketari dagokionez...

- Kudeaketan eta lanketan gabeziak: heziketa eta tresna falta.
- Deskantsu emozionalerako denbora falta.
- Bizitza-etaparen konplexutasuna.
- Eredu positibo falta.
- Joera barnerakoak emozioen sintomatizazioari dagokionez.

Familiaren baitako harremanei lotuta...

- Komunikazioan gabeziak guraso eta seme-alaben artean.
- Seme-alaben gehiegizko babesa.

- Arau/muga falta.
- Familia eredu tradizionala erreproduzitzen ez duten kasuetan norbere burua kokatzeko zailtasunak.
- Gurasoen estresa.
- Guraso izateko espektatibetan desajusteak.
- Denbora falta seme-alabei eskaintzeko.
- Seme-alabei eskaintzen zaien kalitate baxuko arreta.
- Guraso izateko exigentzia-maila altua.
- Gurasoen heldutasun eza.
- Gurasoen autoritate galera (“kolegismoa”).
- Gurasoen arteko banaketa gatazkatsuak.

Aisialdiko ohiturei lotuta...

- Eskaintza interesgarri falta.
- Alkohol eta sustantzien kontsumoari oso lotutako eredua eta kontsumo goiztiarra.
- Diru kopuru handietara sarbide goiztiarra.

5.3 Ondoezak haur eta nerabeengan

Zerrendatutako eragile horiek guztiek haur eta nerabeengan, adinari eta bizitza etaparen berezitasunei oso lotuta, **modu espezifiko eta pluraletan dute eragina** (nahiz ez denetan berdin), ondoez ezberdinak eraginez. Horiek, nagusiki, honako multzoetan sailka genitzake:



5.4 Ondoezak zapalkuntzak jasaten dituzten haur eta nerabeengan


Hala ere, adinaz harago, haur eta nerabeen artean badira batzuk, beren ezaugarri fisiko edo sozialengatik, zenbait ondoez berariaz pairatzeko arrisku-egoera nabarmenagoa dutenak, normatik at kokatuta egonagatik edo, beste modu batera esanda, pribilegiadunen zapalkuntza pairatzeagatik.

Pertsonak beren ezaugarriengatik hobeste edo baztertze hori eraikia da, pribilegioan kokatuta daudenen kontsentsu bati esker eraikia.

Gauzak horrela, zapalkuntza pairatzeagatik edo zapaltzaile izanagatik kontzientzia hartzea garrantzitsua izango da, pribilegioaren kontzientzia hartzea hori deseraikitzeke lehen urratsa baita; eta zapaldu izanaren kontzientzia hartzea zapalkuntzari aurre egiteko lehen urratsa.

Horregatik, diagnostiko honetan, problematikak izendatzeaz gain, fokua modu berezitan jarri nahi izan dugu horiek pairatzen dituzten haur eta nerabeen profil eta ezaugarri zehatzetan ere, ezagutzeko haur eta nerabeen ongizate emozionala nola baldintzatzen duten; eta, bereziki, problematika eta ondoezi eman beharreko erantzun kolektiboetan berariazko errealitate horiek kontutan hartu daitezten.

Honakoak izan dira egindako lanketan identifikatutako kasuak:



Azkenik, hurrengo orrialdean kontsulta daiteke atal honetan aipatu diren ondoez edo problematikak eta horien eragile guztiak, era grafikoan irudikatuta.

6 EKOSISTEMA

Txostenaren seigarren atal honetan Arrasaten 6 eta 18 adin tarteko haur eta nerabeen ongizate emozionala zaintzeko eta horiek pairatzen dituzten ondorez eta problematikei erantzuteko egun existitzen den **herri-mailako baliabideen ekosistema** zein den aztertuko dugu: askotariko programa, zerbitzu, azpiegitura eta eragile sozialen ekimenen arteko sarea, hain zuzen ere.

Atal honetan, aipatu berri ditugun programa, zerbitzu, azpiegitura eta eragile horiek erantzuna eman asmo dieten helburuen arabera multzokatu ditugu, ekosistema osatzen duten “*organismoak*” bailiran:

- Osasun arloko gaixotasun eta nahasmenduei aurre egiteko ekimenak.
- Zaurgarritasun egoerei aurre egiteko ekimenak.
- Aisialdi osasuntsua, kultura, kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko ekimenak.
- Euskararen ikasketa laguntzeko ekimenak.
- Haur, nerabe eta gazteen parte hartze komunitarioa sustatzeko ekimenak.
- Pertsonen ahalduntzea eta parekidetasuna sustatzeko ekimenak.

Organismo bakoitzaren baitako ekimenen eragile sustatzaileak zein diren ere jaso dugu, erakunde publikoak, eragile sozialak eta eragile pribatuak bereizita.

6.1 Osasun arloko gaixotasun eta nahasmenduei aurre egiteko ekimenak

Ekimena	Egitekoa	Sustatzailea
Lehen Mailako eta Bigarren Mailako Osasun Arreta	Lehen mailako osasun-arreta herritarren osasun-arazo arruntak artatzeko lehen puntua da. ➤ Osasun-zentroetan eskaintzen da (osasun-etxeak, anbulatorioak). ➤ Familia-medikuak, pediatrak, erizainak eta gizarte-langileak arduratzen dira. ➤ Ohiko kontsultak, txertoak, jarraipen medikoa, osasun-hezkuntza eta prebentzio-programak eskaintzen dira. Bigarren mailako osasun-arreta, berriz, espezializazio handiagoa eskatzen duten osasun-arazoez arduratzen da. ➤ Ospitaleetan edo espezialista-zentroetan eskaintzen da. ➤ Medikuntza espezializatuko profesionalak arduratzen dira (psikiatrak, kardiologoak, traumatologoak, neurologoak, etab.). ➤ Proba diagnostiko aurreratuak, ebakuntzak eta tratamendu espezifikoak egiten dira.	Erakunde publikoak: Osakidetza.
Bizigazte	Osasun mentaleko arazoak dituzten adingabeentzako zentroa da, San Juan de Dios ospitalean kokatua. Gaixotasun mentala duten pertsonak artatzen egiten dute lana. Adin nagusiko gaixoekin egiten zuten soilik lan orain artean, baina ikusirik nerabeen artean ere gero eta ohikoagoak direla problematikak, horiek artatzeko unitatea ere zabaltzen berri dute.	Erakunde publiko eta pribatuak: Gipuzkoako Foru Aldundia eta San Juan de Dios ospitalea
Adikzioen prebentziorako programa	Arrasateko Udalak adikzioen prebentziorako hainbat ekimen garatzen ditu, herritarren osasuna eta ongizatea sustatzeko helburuarekin. Horien artean, ikastetxeetan sustantzien kontsumoaren inguruko datu bilketa eta prebentzioarako esku hartzeak daude, DBH etapatik aurrera garatzen direnak.	Erakunde publikoak: Arrasateko udala
Katearen loturak	Patologia duala (adikzioa + gaixotasun mentala) duten pertsonen senideen elkarte da. Patologia dual deritzo pertsona batengan aldi berean elkartzen direnean adikzioa (portaerari edo sustantziei lotuta) eta beste buru-osasuneko nahasmenduren bat (gaur egun adikzioa buru-osasuneko arazoa dela onartuta baitago).	Eragile soziala
Fedepadual	Patologia dualari buruzko tratamendua, prebentzioa, prestakuntza eta/edo ikerketa helburu nagusi duten elkarte edo erakunde publiko edo pribatu guztiak biltzen dituen estatu mailako federazioa da. Saiatzen da familiak eta patologia duala sufritzen duten pertsonen laguntza ematen. Beste elkarte batzuekin elkarlanean ere aritzen dira eta prebentzioa da beren jardunean alor garrantzitsua.	Eragile soziala
Adahigi	Gipuzkoako Arreta Defizitaren eta Hiperaktibitatearen Elkarte da. Arreta Defizitaren edo Hiperaktibitatearen diagnostikoa	Eragile soziala

	dagoen momentuan hasten dira lanean. Esku-hartze indibidualak eta talde terapiak egiten dituzte hurrekin; baina guraso eta ikastetxeekin ere lana egiten dute. Arlo emozionala asko lantzen dute.	
Acabe	Anorexia eta Bulimiaren aurkako Gipuzkoako elkarte da, 1994an sortua. Elkarte honek elikadura-jokabidearen nahasteak dituzten pertsonak eta haien senideak laguntzen ditu, informazioa eta aholkularitza eskainiz. Gizartea sentsibilizatzeko jarduerak ere antolatzen ditu. Donostian du egoitza nagusia eta 2003tik Arrasaten bigarren egoitza bat ere badauka.	Eragile soziala
Agifes	Buru Osasun Arazoa duten Pertsonen eta Senideen Gipuzkoako Elkarte da, 1985ean sortua. Helburu da buru-osasun arazoak dituzten pertsonak eta haien senideak laguntzea, haien bizi-kalitatea hobetzeko. Horretarako, orientazio-zerbitzuak, talde-terapiak, aisialdi-programak eta sentsibilizazio-kanpainak garatzen dituzte.	Eragile soziala
Gautena	Gipuzkoako Autismo Elkarte da, autismoaren espektroko nahasteak dituzten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea helburu duena. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, hala nola hezkuntza, laneratzea, etxebizitza eta aisialdia, betiere pertsona horien autonomia eta gizarteratzea sustatuz.	Eragile soziala
MondraTEA	Autismoaren inklusioa eta ikusgarritasuna bultzatzeko elkarte da MondraTEA. Helburua da pertsona horiei eta haien familiei laguntza eta baliabideak eskaintzea, haien beharrei erantzuteko eta gizarteratzea sustatzeko.	Eragile soziala

6.2 Zaurgarritasun egoerei aurre egiteko ekimenak

Ekimena	Egitekoa	Sustatzailea
Familia esku-hartze programa	Programa honek familiei laguntza eskaintzen die, haien funtzionamendua hobetzeko eta gatazkak prebenitzeko. Helburua da familien ongizatea sustatzea, komunikazioa eta harremanak indartuz.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Bazterkeria arriskuan daudenei laguntza psikohezitzailea eskaintzeko programa	Programa honen bidez, gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonen laguntza psikosoziala eta hezitzailea ematen zaie, haien gizarteratzea eta autonomia sustatzeko.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Bizikidetza tailerrak	Tailer hauen helburua da bizikidetza hobetzea, gatazken prebentzioa eta kudeaketa lantzea, eta elkarbizitza osasuntsua sustatzea komunitatean.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Harrera zerbitzua	Zerbitzu honek udalerrira iristen diren pertsona berriei informazioa eta orientazioa eskaintzen die, haien integrazioa errazteko eta behar dituzten baliabideak eskuratzen laguntzeko. Arrasateko Udalak, Ekin elkartearekin elkarlanean eskaintzen du zerbitzu hau. Herrira etorri berriei, modu zuzen eta pertsonalizatuan harrera egiten zaie, haien egoera ezagutu eta informazioa eta orientazioa emateko. Horrez gain, Arrasateko baliabideei buruzko eta heldu diren inguru geografiko, sozial eta kulturala aurkezteko tailerrak ere antolatu ohi dira.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Kale heziketa zerbitzua	Gizarte-Heziketa Zerbitzua 2008an jarri zen martxan babesgabetasun edo bazterkeria arrisku egoeran egon daitezkeen aurrenerabe eta nerabeei garapen pertsonalean laguntzeko helburuarekin. Zerbitzuko hezitzaileen lana da babesgabetasun edo bazterkeria arrisku egoeran dauden haur eta nerabeek dituzten beharrak identifikatzea; eta haur eta nerabe horiek gizarteko errekurtso normalizatueta parte hartu dezaten esku-hartzeak planifikatu eta aurrera eramatea. Funtsean, tresna hezitzaileak eskaintzea dute helburu, erabiltzaileek trebetasunak bereganatu ditzaten eta baliabide eta zerbitzu komunitarioetarako bidea zabaltzeko. Esku-hartze horiek hainbat arlotan burutu ohi dituzte: • Arlo pertsonalean, autoestimua, autonomia, emozioen kudeaketa... landu ohi dira. • Harremanen arloan, berriz, haur eta nerabeek besteekin harremantzeko dituzten gaitasunak. • Aisialdian, Arrasateko errekurtso normalizatueta parte hartzeko tresnak eskaintzea eta bideak zabaltzea lantzen da.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Gazteria saila.

	Eta, familia arloan, gurasoekin kontaktua mantentzen dute, familietan ere eragitea beharrezkoa baita.	
Adingabekoentzako egoitza zentroak	Adingabeko egoitza zentroan bakarrik, babesik gabe edo arriskuan dauden adingabeei bizitokia eta arreta eskaintzen zaie haien behar afektibo, hezitzaile eta sozialak asetzeko eta haien garapen integrala sustatzeko. 9 plaza daude guztira Arrasaten, guztiak beteta.	Gurutze Gorria, "Acogida" programak kudeatzen du zerbitzua gaur egun.

6.3 Aisialdi osasuntsua, kultura, kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko ekimenak

Ekimena	Egitekoa	Sustatzailea
Jarduera fisikoa sustatzeko dinamizazio programa	Programa honek herritarren artean eta, bereziki, nerabeen artean, jarduera fisikoa, aktibazioa eta bizimodu osasungarria sustatzea du helburu, hainbat ekimen eta tailerren bidez. Urtero ekintza ezberdinak diseinatzeko dira eta beste sail batzuekin elkarlanean ere jardun ohi dira (Euskara saila, kasu).	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Kirol saila
12-16 adin tarterako kirol ikastaroak	Gazteei zuzendutako kirol ikastaroak dira, adin tarte horretako neska-mutilek kirol desberdinak ezagutu eta praktikatzeko aukera izan dezaten.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Kirol saila
Eskola kirola	Eskola Kirola ikastetxeetako ikasleei zuzendutako kirol-programa da, eskola-ingurunean garatzen dena. Helburu nagusia da haurrek kirol-jarduera erregularki egitea eta kirolaren bidez balioak lantzea. Eskola Kirola Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalek sustatzen dute, eta ikastetxeek, klubek eta gurasoek ere parte hartzen dute. Entrenamenduak eta asteburuko partidak edo ekintzak izaten dira, beti haur guztiek parte hartzeko aukera izatea bermatuz.	Erakunde publikoak eta eragile sozialak: Arrasateko udaleko Kirol saila eta Leintz Eskola Kirola
Igeriketa sustapena	Igeriketa ikastaroak eta jarduerak eskaintzen dira udal kiroldegian, herriko ikasleen artean igeriketaren praktika eta ur-ingurunearekiko segurtasuna bultzatzeko.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Kirol saila
Txikitxokoa	Aisialdi gune bat da, 2018 urtean martxan jarri zena. 0-6 urteko haurrak dituzten familiei dago zuzendua, haurrak gurasoekin batera bertan jolastu daitezten. Horrez gain, edoskitzeko espazio egoki bat ere izan daiteke, baita ere, gurasoen artean harremanak eta elkartrukea sustatzeko. Lokalak 61 lagunentzako aforoa du.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gazteria saila
Haurren Zerbitzua - Ludotekak	3-11 urte bitarteko haurren jolas eta gozamenerako gunea da Haurren Zerbitzua. Herriko 3 ludoteketan eskaintzen da (Okendo, Usaetxe eta Santamania), ondo pasatzeko, pertsonen artean harremanak sortzeko, auzoan eta herrian parte hartzeko, sormena eta emozioak azaltzeko... Zerbitzuaren helburua da aisialdian hezteak eta haurren garatze integrala bultzatzea, eta hiru zehar lerro jorratzen dira zerbitzu horietatik: berdintasuna, euskara eta inklusioa.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gazteria saila
Nerabeen Zerbitzua – Gaztetxokoak eta Gaztelekua	Nerabeei zuzendutako zerbitzuak 12-17 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako guneak dira, ondo pasatzeko eta euren garapenean esanguratsuak diren arlo ugari lantzeko: pertsonen arteko harremanak, parte hartzea, sormena, autonomia, emozioak, ... Arrasaten 4 espaziotan (3 Gaztetxoko eta Gaztelekua 1) eskaintzen da Nerabeen Zerbitzua: San Andres, Erguin, Musakola eta tren geltokia.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gazteria saila

	Horietan, hiru zehar lerro jorratzen dira: berdintasuna, euskara eta inklusioa.	
Haur eta nerabeei zuzenduriko hiri espazioak	Hiri barruan haur eta nerabeentzako egokitutako espazioak dira, jolas, kirol eta aisialdirako guneak eskaintzen dituztenak.	Erakunde publikoak: Arrasateko udala
Ikastetxeak	Arrasatek hezkuntza zentro ugari ditu, 0-18 adin tarteari zuzendutako hezkuntza eskaintza zabala dutenak, hala nola: - Haurreskolen partzuergoko zentroak (Musakola eta Bedoñabe). - Arrasateko Herri Eskola. - Arrasate BHI - Arizmendi ikastola. Horrez gain, Lanbide Heziketa eta unibertsitateko ikasketak eskaintzen dituzten beste ikastetxe batzuk ere badaude herrian.	Erakunde publikoak: Arrasateko udala eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila
Kirol instalazioak	Herrian hainbat kirol instalazio daude, hala nola, kiroldegia, futbol zelaiak, frontoiak eta igerilekuak, herritarrek kirol jarduerak modu egokian praktikatu ahal izateko.	Erakunde publikoak: Arrasateko udalaren azpiegiturak
Kultur ekipamenduak	Kulturate: herriko kultur-etxea da, non hainbat kultur jarduera, erakusketa eta tailer antolatzen diren, herritarren parte-hartzea eta sormena bultzatuz. Biblioteka ere bertan dago kokatuta. Kulturola: kultur jarduerak eta ekitaldiak hartzen dituen espazioa da, herriko kultur eragileentzako topagunea eta sormen gunea. Amaia antzokia. Musika Etxea.	Erakunde publikoak: Arrasateko udalaren azpiegiturak
Altxa burua elkarteak	Teknologiaren erabilera egokia bultzatu nahi duen guraso taldea da. Helburuak honakoak dira: - Telefono eta gailu elektronikoen inguruan dauden arriskuen inguruan kontzientziakzio lana egitea. - Tresna horiek haurrei ahalik eta beranduen ematea. - Gurasoak momentu hori heltzen denerako prestatzea. Urtebete daramate lanean. Arrasateko ikastetxeekin koordinatuta ari dira lanean eta baita Udalarekin ere.	Eragile soziala
Kirol elkarteak	Arrasaten hainbat kirol elkarte daude, kirol desberdinen praktika eta sustapena bultzatzen dutenak, hala nola futbola, saskibaloia, pilota edo atletismoa. Nerabe eta gazte askok hartzen dute horietan parte.	Eragile sozialak
Kultur eragileak	Herrian kultura arloan aktibo diren talde eta elkarteak dira, antzerkia, musika, dantza eta beste hainbat diziplinatan jarduten dutenak, herriko kultur bizitza aberastuz. Hauek antolatutako jardueretan ere haur, nerabe eta gazte ugari hartzen dute parte.	Eragile sozialak

6.4 Euskararen ikasketa laguntzeko ekimenak

Ekimena	Egitekoa	Sustatzailea
Euskara errefortzu klaseak	Arrasateko Udal Euskaltegiak 2008az geroztik eskaintzen duen programa da, herrira etorri berri diren ume eta nerabe etorkinei zuzendua. Helburua da ikasle hauek euskaran murgiltzea eta hizkuntza gaitasuna hobetzea.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Euskara saila
Zuaz proiektua	Zuaz proiektua Arrasateko udaleko Euskara sailak eta Txatxilipurdik elkarlanean antolatu ohi duten programa da, euskara errefortzuko ikasleei herriko baliabideen berri ematea eta komunitateko ekimenetara gerturatzea helburu duena. Horretarako, jatorri migratzaileko herrikide batek euskaltegiko ikasleekin gidari lanak egiten ditu denen artean adosten duten bisita batean.	Erakunde publikoak (Arrasateko udaleko Euskara saila) eta eragile sozialak
Ereitten	Irakasle jubilatu bolondresak dira, herriko ikasleei euskara ikasten laguntzeko sartu direnak.	Eragile soziala

6.5 Haur, nerabe eta gazteen parte hartze komunitarioa sustatzeko ekimenak

Ekimena	Egitekoa	Sustatzailea
Haurren kontseilua	Haurren Kontseilua udalerriko haurrek osatutako taldea da, alkatetzaren aholkulari organo bezala lan egiten duena. Kontseiluko kideek alkatetzaren galdera eta proposamenei haien ikuspegitik erantzuten diete eta udalerrarentzako proposamen eta proiektuak garatzen dituzte. Haurren Kontseilua 18 lagunek osatzen dute eta bertan parte hartzeko 2 urteko konpromisoa daukate. Umeak Arrasateko ikastetxeetako LHko 4. eta 5. mailako ikasleak dira, taldearen erdia 4. mailakoa izanik eta beste erdia 5. mailakoa. Parte-hartzaileen erdia urtero berritzen da. Kontseiluan parte-hartzeko, umeek haien burua proposatzen dute eskolaren bitartez, eta aurkeztutako umeen artean zozketa bidezko aukeraketa egiten da. Haurrak ez dira klase-kideen ez beste haurren ordezkari, beraien esperientzia eta ideiekin egiten dute lan. Eraketan aniztasuna eta parekidetasuna bermatzeko baldintzak ezartzen dira.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gazteria saila
Nerabeen zerbitzuen arteko koordinazio mahaia	Nerabeen zerbitzuen arteko koordinazio mahaia udalaren ekimenez abian jarri nahi den lan-taldea da, nerabeen beharrak eta interesak identifikatu eta horiei erantzuteko helburuarekin. Mahai honetan, udaleko hainbat sail eta herriko eragileak elkarlanean aritzea da helburua, nerabeen ahotsa jaso eta beren ongizatea eta garapen integrala sustatzeko.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gazteria saila
Gazteriako diru-laguntza programak	Arrasateko Udalak gazteei zuzendutako hainbat dirulaguntza eskaintzen ditu, haien garapen pertsonala, profesionala eta soziala sustatzeko. Honako modalitateak daude: - Gazte elkarteek urteko ekintzak garatzeko laguntzak. - Etxebizitza alokairua ordaintzeko laguntzak: 35 urtetik beherako gazteei zuzendutako laguntzak dira, alokairuaren kostua arintzeko. - Musika taldeentzako grabaziorako laguntzak: Herriko musika taldeei zuzendutako laguntzak dira, haien grabazio proiektuak finantzatzeko. - Aisialdi eta kirol programetan haurren parte hartzea sustatzeko diru-laguntzak.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gazteria saila
Gazte bulegoa	Informazioa, komunikazioa eta orientazioa eskaintzen die haur, nerabe eta gazteei bulego honek. Horrez gain, haur, nerabe eta gazteei zuzendutako zerbitzu eta ekimenen inguruko zabalkundea ere egiten da bertatik; izapidetza ezberdinetan laguntza eskaintzen da (dirulaguntza eskaerak, matrikulak, txartelak...); eta zubi lana egiten da erakunde ezberdinen arteko programetan: udalekuak, auzolandegiak, e.a.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gazteria saila
Familian jolasean	0-8 adin tarteko haurrentzat eta beren familientzat eskaintzen den jarduera.	Erakunde publikoak: Arrasateko

		udaleko Gazteria saila
Gaztetxea	Arrasateko gaztetxea Uarkape pilotalekuaren ondoan kokatuta dagoen gaztetxea da. Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatuak (AGAKO) kudeatzen du.	Eragile soziala
Entsegu lokalak	Arrasateko entsegu lokalak musika taldeek beren jarduera garatzeko erabiltzen dituzten espazioak dira. Espazio horiek musikariek beren sormen prozesuak garatzeko eta entseguak egiteko aukera eskaintzen dute. Musakolan daude kokatuta depositoetako lokalak. Horrez gain, gaztetxean ere badira lokalak.	Erakunde publikoak: Arrasateko udalaren azpiegiturak


6.6 Pertsonen ahalduntzea eta parekidetasuna sustatzeko ekimenak

Ekimena	Egitekoa	Sustatzailea
Treba gazteak	Arrasateko Udalak nerabe eta gazteei zuzendutako hitzaldi eta tailerrak antolatzen ditu.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gazteria saila
EKKO programa	EKKO (Eskola, Komunitatea, Kirola, Osasuna) programa Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako ekimena da, trebetasun sozial eta emozionalak lantzeko helburuarekin. Programa honek ikasleek erabaki osasuntsuak hartzeko eta portaera arriskutsuak saihesteko tresnak eskaintzen ditu. Arrasateko Udalak, San Juan de Dios Ospitaleak, Herri Eskolak, Txatxilipurdi elkarteak, Leintz Eskola Kirolak, Arizmendi Ikastolak eta Mondragon Unibertsitateak parte hartzen dute proiektuan.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gazteria saila eta Gizarte Zerbitzuak
Gurasoentzat hitzaldi eta tailerrak	Arrasateko Udalak gurasoentzako formakuntza saioak antolatzen ditu, seme-alaben heziketari buruz hausnartzeko eta egunerokotasunean sortzen zaizkien kezka eta zailtasunak konpartitzeko. Hitzaldiak eta tailerrak urtariletik maiatzera bitartean eskaintzen dira, adin tarte desberdinetako seme-alabak dituzten gurasoentzat.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gazteria saila eta Gizarte Zerbitzuak
Bertakoak dantzan (BASH)	Ekimen hau aniztasun funtzionala duten nerabe eta gazteei zuzenduta dago. Saioak Batera Aske kooperatiba txikiak Bertakoak Dantzan saioak dinamizatzen ditu eta sormena eta askatasuna bultzatzen dute dinamika ezberdinen bidez, musikaren laguntzaz. Programaren helburua talentuaren bidez aukerak eraldatzea da, horretarako espazio sortzaileak sortuz. Sormena eta askatasuna bultzatzen dira bertan, musikaren laguntzaz eta mugimendua eta gorputz adierazpenaren bidez, bakoitzaren beharrak eta nahiak errespetatuz. Jolasen bidez ikastea eta prozesuan ondo pasatzea da kontua. Gainera, beste gai batzuk ere lantzen dira: talde-lana, gazteak ahalduntzea, sozializazio-guneak sortzea, lehiakortasunetik kanpo parte-hartzea sustatzea, etab.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gazteria saila eta Gizarte Zerbitzuak
Teknologia berrien erabilera osasuntsurako tailerrak	Arrasateko Udalak gazteak eta hezitzaileak mundu digitalerako prestatzeko tailerrak antolatzen ditu, teknologia berrien erabilera kritiko eta kontzientea sustatzeko helburuarekin. Ekintza hauek bereziki ikasle, irakasle eta gurasoei zuzenduta daude.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gizarte Zerbitzuak
Autodefentsa feminista tailerrak nerabeentzat	Arrasateko Udalak nerabeentzat autodefentsa feminista tailerrak eskaintzen ditu, emakumeen eskubideak eta berdintasuna sustatzeko. Tailer hauek emakume gazteen artean indarkeria matxistaren prebentzioa eta autodefentsa fisiko eta emozionala lantzen dituzte.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Feminismoak saila.
Indarkeria matxista prebenitzeko programa	Arrasateko Udalak indarkeria matxistaren prebentzioa eta sentsibilizazioa lantzen duen programa bat du, komunitatean genero berdintasuna eta emakumeen eskubideak sustatzeko. Programa honek hezkuntza, sentsibilizazio eta laguntza zerbitzuak eskaintzen ditu.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Feminismoak saila.

Emakumeen jabetze eta ahalduntze eskolak	Arrasateko Udalak emakumeen jabetzea eta ahalduntzea sustatzeko eskola eta tailerrak antolatzen ditu, emakumeen autonomia eta parte-hartzea bultzatuz. Ekintza hauek emakumeen eskubideak, osasuna, hezkuntza eta lan arloetan zentratzen dira. Adin guztietako emakumeei zuzenduta badaude ere, hainbat nerabe eta gaztek hartzen dute horietan parte.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Feminismoak saila.
Eskoletako ahalduntze saioak	Arrasateko Udalak eskoletan ahalduntze saioak eskaintzen ditu, ikasleen artean genero berdintasuna eta emakumeen eskubideak sustatzeko. Saio hauek hezkuntza komunitatean sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzen dute. Emakumezko nerabeengan efektu bereziki positiboa dute saio horiek.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Feminismoak saila.
Autoestimua eta emozioen lanketarako ikastaroak	Arrasateko Udalak adin guztietako herritarrei zuzendutako ikastaroak eskaintzen ditu, autoestimua eta emozioen kudeaketa lantzeko. Ikastaro hauek pertsonen ongizatea eta garapen pertsonala sustatzen dute. Herritar orori zuzenduta badaude ere, gero eta ohikoagoa da emakumezko nerabeek horietan parte hartzeko interesa izatea.	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Feminismoak saila.
Sexologia zerbitzua	Sexualitatearen inguruan heziketa eta sentsibilizazioa egiten duen zerbitzua da, herri osoari zuzendua. Pertsonen zuzeneko arreta, taldeekin elkarlana eta askotariko ekimenak: kanpainak, ikastaroak, argitalpenak, hitzaldiak, ...	Erakunde publikoak: Arrasateko udaleko Gazteria eta Feminismoak sailak.

Azkenik, hurrengo orrialdean kontsulta daiteke ekosistema oso honen irudikapen grafikoa.

EKOSISTEMA



7 ONDORIOAK

Ondorioen atal honetan haur eta nerabeen ongizate emozionala kaltetzen duten faktoreen eta horiek duten eraginaren inguruko analisi orokorra egin dugu, horretarako aurrez aurkeztutako informazioak aintzat hartuta.

Zehazki, horrela antolatu ditugu atal honetan bildutako ideiak:

1. Testuinguru globalaren eta errealitate partikularren eragina.
2. Arrasateko haur eta nerabeen ondoezak.
3. Erantzunak.

Idea bakoitzean sakondu aurretik, atal honetako edukiek izan ditzaketen alborapenen inguruan ere, ohar bat: Elhuyarreko talde teknikoa izan da bildutako ideia horien gainean diskurtsoaren analisisia egin duena. Gauzak horrela, kontutan hartu behar da emaitzak zenbait alborapen izan ditzakeela, besteak beste hurrengo egoerek baldintzatuta:

- Prozesuan zehar parte hartu duten pertsonen ordezkaritza ahalik eta zabalena eta orekatuena izateko saiakera egin bada ere, irismena mugatua izan da.
- Informazioa biltzeko baliatutako metodoek (talde-elkarrizketak eta online betetzeko galdetegiak) aukera oso zabalak eskaintzen badituzte ere, zailtasunak ere izan ditzakete horrelakoetan parte hartzera edo baliatzera ohituta ez dauden pertsonentzat, esaterako.
- Elkarrizketatzaileen generoa, adina... nahiz gaiari heltzeko modua, baldintzatzaile ere izan daitezke elkarrizketatuak informazio jakin bat partekatzeko orduan.

1. TESTUINGURU GLOBALAREN ETA ERREALITATE PARTIKULARREN ERAGINA

1.1. Haur eta nerabeen ongizatean eragina duen testuingurua konplexua da eta gizarte osoa kaltetzen du; baina haur eta nerabeek ondorio espezifikoak pairatzen dituzte

Prozesuan zehar identifikatu ditugun ondoezak eta horien eragileak zerrendatu ditugunean aipatu dugun moduan, haur eta nerabeen osasun mentala kaltetzen duten **problematikak izaera, dimentsio eta ezaugarri oso anitzetako faktoreak dira; maila sistemiko-globalean dute gehienek erroa baina maila lokaleraino erreproduzitzen dira.**

Sarritan, gainera, ez dago garbi zein den problematika horien **kausa** eta zein den **efektua**. Izan ere, faktore askoren baturaren ondorio izan daiteke ondoez bat eta horixe bera, aldi berean, beste baten eragile izan.

Horregatik esan dezakegu problematika ez dela bat eta bakarra, **testuinguru konplexu baten ondorio** baizik.

Problematika orokor horiek, Arrasateko haur eta nerabeengan **ondorio espezifikoak** eragiten dituzte eta horiek **egoera bereziki zaurgarrian kokatzen dituzte**, bi arrazoi nagusi direla medio:

- Nerabezaroak, haurtzarotik helduaroranzko bizitzako garapen-aldi modura, dakarren konplexutasuna eta erronka: aldaketa fisiologikoak; garapen psiko-emozionala; ingurune sozial eta afektiboarekin harremanak garatzea; nortasuna, genero-identitatea eta sexu-orientazioa sendotzea; moralki garatzea; bulkadak kontrolatzen ikastea; ideologikoki garatzea; pentsamendu abstraktua garatzea; etab.
- Adinkeriak zeharkatutako egungo gizarte-sisteman, haurrak eta nerabeak eskubide osoen jabe ez diren subjektu gisara ulertzeko indarrean dagoen joera, subjektu pasiboak bailiran, zeinek ez duten erabakimenik edo rol aktiborik berei dagozkien gizarte-gaietan.

1.2. Gizarteko pertsona guztiok pairatzen ditugun zapalkuntzak edo diskriminazio egoerak ere erreproduzitzen dira haur eta nerabeengan, berariazko forma hartuz

Hala ere, **haur eta nerabe guztiek ondoez berdinak ez dituzte modu berdinetan pairatzen, kolektibo uniforme bat bailiran.**

Diagnostikoaren atal ezberdinetan ikusi ahal izan dugun moduan, pertsona bakoitzaren ezaugarriek, bizipenek, osasun-egoerak eta, bereziki, bizi dituen **zapalkuntza-egoerek**, ondoez batzuk modu batera edo bestera pairatu beharra eragingo du, hala nola:

- Migrazio prozesuak bizi izan dituzten edo jatorri atzeritarreko familietako pertsonen kasuan:
 - o Euskara ikasteko zailtasunak.
 - o Bizimodu berri batera egokitzeko zailtasunak.
 - o Aniztasun kulturalagatiko eskusioa.
 - o Sozializazio normalizaturako (taldeetan, kuadrilletan) oztopoak.
 - o Integrazio arazoak.
 - o Gatazka identitarioak.
 - o Marginazioa.
- Emakumeen eta genero disidenteek kasuan:
 - o Indarkeria matxista.
 - o Abusu sexualak eta kontsentimendu arazoak.
 - o Jarrera matxistak eta homofoboak.
 - o Diskurtso matxista eta homofoboak.
- Maila sozioekonomiko baxuko familietako haur eta nerabeen kasuan:
 - o Lehen mailako beharrak asetzeko zailtasunak, eskubide beharko luketenak.
 - o Sarbide normalizaturako zailtasunak: aisialdia, teknologia...
- Itxura fisiko normatiboa ez duten haur eta nerabeen kasuan:
 - o Kanon estetikoaren presioa (mutilen kasuan ere gero eta gehiago agertzen ari dena).
 - o Elikadurarekin harreman gatazkatsuak.
 - o Irainak.
- Familia desegituratuetan bizi diren haur eta nerabeen kasuan:
 - o Egoera emozional bereziki zaurgarriak, emozioen kudeaketari, biolentzia egoerak kudeatzeari edota erreferente positiboak garatzeari dagokionez.

Hortaz, haur eta nerabeen kasuan ere errealtate hori presente izan behar da: deskribatutako ondoezek ez dute intzidentzia berdina haur eta nerabe guztiengan. Izan ere, badira zaurgarritasun eragile batzuk, bizipen edo ezaugarri konkretu batzuk dituzten pertsonak arrisku-egoera nabarmenagoan kokatzen dituztenak.

2. ARRASATEKO HAUR ETA NERABEEN ONDOEZAK

2.1. Ikastetxean, familian, lagun taldeetan eta sare sozialetan bizi dituzten harreman konplexuek, pantailen erabilera orokortu eta ia etengabearekin batera, kudeatzen zaila edo ezinezkoa izan ohi zaien ezinegon emozionala eragiten dute haur eta nerabeengan

Oso esanguratsua da azken urteotan **teknologia berrien (pantailen) eta sare sozialen erabilerak** izan duen gorakada. Horiek gizarte mailan izan duten orokortzearen ondorioz haur eta nerabeek ere eskura izan ohi dituzte gero eta adin goiztiarragoetan eta presentzia oso handia hartu dute beren egunerokoan. Erabilera horrek efektu negatiboa izan dezake eta izan ohi du berengan, hainbat eremutan:

- Ikas-eremuan, gero eta kasu gehiagotan gertatzen dira horrelakoak: ahozkotetasunaren galera, arreta mantentzeko zailtasunak, zentzu kritikoaren galera edukiak filtratzeko gaitasun ezari lotuta, errendimendu-arazoak... aipa daitezke.
- Harremantzeko moduei lotuta, berriz, honakoak aipa genitzake: errealtatearekiko deskonexioa eta isolamendua, joera barnerakoiak, hiper-individualismoa, trebetasun sozial falta, auto-irudiaren ikuskera negatiboa sare sozialetako erreferente faltsu edo ez-osasuntsuei dagokienez, materiala denarekiko hobestea; hiper-konektatuta bizitzearen ondorioz deskantsu emozionalerako denbora falta ...

Familiaren baitako harremanek eta portaerek ere, kasu askotan, ondoez emozionalen orokortzean ere izan dezakete zeresana. Honi lotuta hainbat faktore aipa genitzake, bi multzo nagusitan saika genitzakeenak:

- Bizi garen gizartearen jokabideak orientatzen eta arautzen dituen sistemaren baitan gurasotasuna uztartzearekin harreman estua duten faktoreak: seme-alabei eskaintzeko denbora falta, bizitzaren abiadura bizia, guraso izateko exigentzia maila altua, kontziliazio arazoak...
- Gurasotasuna arduraz kudeatzeko gabezia edo ezintasunari lotuago dauden beste faktore batzuk: heldutasun falta, seme-alabei arauak edo mugak argi ez finkatzea, erreferente positiboen gabezia, kalitate baxuko arreta, banaketa gatazkatsuak kudeatzeko ezintasuna, atxikimendu eza seme-alaben ikasketa prozesuarekiko...

Horiek guztiek ere, ematen diren kasuetan, eragin negatiboa izan ohi dute haur eta nerabeen ongizatean.

Horrez gain, **ingurune sozialean lagunekin harremantzeko moduei** lotutako beste hainbat aspektu ere ondoezen eragile dira kasu askotan.

Izan ere, haur eta nerabeek maiz erreproduzitzen dituzte gizarte mailako botere-harremanak beren harreman-sareetan (kuadrilletan): lidergo eredu ez-osasuntsuak, enpatia falta, taldekideen arteko etiketak, lehiakortasuna (ikasketei lotuta, batik bat), etab.

Horren guztiaren eraginez, haur eta nerabeak, garapen fasean bete-betean dauden unean, testuinguru abegikor batean baino, ingurune tentso batean harremantzen hasten dira batzuk besteekin. Horren ondorioz, kolektiboarekiko atxikimendua murrizten ari da, komunitate sena galtzen; eta, sarritan, gatazkatsu kontsidera ditzakegun harreman sozialak ere azaleratzen dira: taldekideen baztertzak; antsietate soziala; ikasgeletako harreman gatazkatsuak; bullying kasuak, etab.


Gauzak horrela, aipatu ditugun harreman konplexu horiek haur eta nerabeengan **kudeaketa emozional osasuntsu bat egiteko ezintasuna** eragiten dute sarritan, norbanakoek bizipen horien guztien kudeaketarako tresnak falta dituztelako. Horren ondorio izan ohi dira gatazkak edo emozioak kudeatzeko izan ditzaketen ezintasunak, frustrazioa, isolamendua, bakardadea, tristura, isiltasuna, barne-huts sentrazioa, apatia, presioa, autoestimu baxua... Eta baita, kasu bortitzenetan, **jokaera disruptiboak** ere: erantzun bortitzak, jarrera delinkuenteak, eztandak, jarrera erasokorrak, jokabide autolitikoak, autolesioak...

1.2. Adikzioa eragin dezaketen praktiken eta substantzien kontsumoa orokortzeak ere badakar ondoez emozionalen areagotzea

Haurrak eta nerabeak komunitatearen parte aktibo baino pasibotzat hartzeak adin tarte jakin batzuetara egokitutako aisialdiko eskaintza interesgarri edo eskuragarri falta eragiten du: adinari dagozkion kode edo moldeetara ondo ez egokitzeagatik, espazio ez-egokietan eskaintzeagatik...

Testuinguru horretan, sarritan eskaintza interesgarririk gabe, diru kopuru altuak adin goiztiarretan eskura izatea orokortu den honetan... **ohiko bilakatu dira haur eta nerabeen egunerokoan adikzioa eragin dezaketen hainbat praktika**: pantailen erabilerarekin lotuta jarduerak dira gehien orokortu direnak (bideo jokoetara jolastea, online erosketak egitea...), baina pornografiaren kontsumoa edo jokuarekin lotutako jarduerak ere nabarmentzen dira. Arrasateko udalaren adikzioen prebentziorako programan 2024-2025 ikasturtean egindako inkestako⁷ datuek, aitortuak izanagatik ere, aditzera ematen dute hori:

Adikzioa eragin dezaketen jardueretara nerabeen sarbidea



Nerabeek gehien kontsumo ohitura duten substantziak generoaren arabera

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
1	Edari energetikoak	Alkohola
2	Alkohola	Edari energetikoak
3	Baperra	Baperra
4	Tabakoa	Tabakoa
5	Marihuana	Psikofarmakoak

⁷ Inkesta hori 2024-2025 ikasturtean Arrasate BHI eta Arizmendi ikastolako DBH eta Batxilergoko 938 ikaslek erantzun zuten. Xehetasun gehiagorako, kontsultatu diagnostikoaren Arrasateko haur eta nerabeen argazkia ataleko "Sustantzien kontsumoa" azpi-atala.


Iturria: Arrasateko adikzioen prebentzio programa 2024-2025

Kasu honetan ere, problematika horiek jendarte mailan bizi den joera orokortu baten isla dira, baina haur eta nerabeen garapenaren etapa kontutan hartuta, are efektu suntsitzaileagoak eragin ditzakete berengan.

1.3. Harremani lotuta bizi duten tentsio horrek guztiak, kontsumo ohitura orokortuek, aisialdi-eremuko jokabide ez-osasuntsuek, sistemak bazterrean kokatu izanagatik pairatzen dituzten egoera zaurgarriek... haur eta nerabeak gaixotasun mentalak, portaera nahasmenduak edo garapen neurologikoarekin lotutako patologiak bereziki garatzera ere eramaten dituzte azken urteotan

Arrasaten lurreratutako datuek sostengatzen dute⁸ baieztapen hori: herriko haur eta nerabe kopuruak azken 10 urteotan behera egin badu ere, osasun mentalaren eremuko gaixotasun edo patologien diagnostiko kopuruak etengabe gora egin du, ia bikoizteraino:

Arrasateko Lehen Mailako Arretako Unitatean osasun mentaleko patologia edo nahasmenduren batekin diagnostikatutako 0 eta 20 adin tarteko haur eta nerabeen % kopurua eta eboluzioa 2014 eta 2024 artean



Iturria: Osakidetza, 2025ko urtarrila

Haur eta nerabe horien artean, gaixotasun mentalen bat, portaera nahasmenduren bat edo garapen neurologikoarekin lotutako patologiarekin bat duten gehienak gizonezkoak badira ere, diagnostikatutako emakumezko kopurua etengabe ari da gora egiten; 15-20 adin tarteko nerabeak dira diagnostiko gehien dituztenak, orain 10 urte ez bezala (orduan 11-15 adin tartekoak ziren gehien diagnostikatzen zirenak); eta, maila sozioekonomikoari dagokionez, joera aldaketa eman da: orain 10 urte familia “aberatsetako” haur eta nerabeak ziren gehien diagnostikatzen zirenak. Horiek behera ari dira egiten etengabe eta, gaur egun, “erdi mailako” familietako haur eta nerabeak dira diagnostikatuen artean nagusi.

Joera aldaketa horiek, ziurrenik, bi faktorekin izango dute zerikusia:

- Osasun-sistema publikoan haur eta nerabeen buru-osasuna artatzeko dagoen baliabide urritasuna (eta, beraz, baliabideak dituzten familiek eremu pribatuko zentroak eta

⁸ Horrelako baieztapenak egiterakoan bada beti zalantza bat: orain 10 urte kasuak gutxiago ziren ala arreta gutxiago eskaintzen zitzairen? Zalantzari erantzuna ematea, ordea, zaila da.

profesionalak -psikologoak, psikiatrak- hobestea beren seme-alabak artatzeko, Osakidetzaaren “mapatik” kanpo geratzen direlarik).

- Diagnostikatutako patologia-motak: gora egin dute azken 10 urteotan osasun mentalaren eremuko patologia eta nahasmendu jakin batzuen diagnostikoek haur eta nerabeen artean, honakoak, bereziki:

Patologia-familia	Diagnostiko kopuruak izandako bilakaera (%tan)
Hautzaroan eta nerabezaroan hasten diren jokabide-arazoak eta trastorno emozionalak	+5
Garapenaren nahaste orokorrak eta espezifikoak	+3,7
Antsietate-nahasmendua, disoziazio-nahasmendua, estresarekin eta psikotikoak ez diren beste nahasmendu mental somatomorfo batzuekin lotua	+3
Trastorno fisiologikoei eta faktore fisikoei lotutako portaera-sindromeak	+1,1
Gogo-aldartearen trastornoak [afektiboak]	+1
Helduaren nortasun- eta portaera-arazoak	+0,4
Adimen-desgaitasuna	+0,4


Iturria: Osakidetza, 2025ko urtarrila

Patologia eta nahasmendu kopurua gora egiten ari den heinean, horiei erantzuteko haur eta nerabeek farmakoak hartzeko joera ere orokortzen ari da, beraz. Gorakada nabarmena da zenbait psikofarmako familietako sendagaien kontsumoan, antsiolitikoen kasuan, esaterako:

Farmakoaren izena	Xehetasunak	Azken 10 urteetako errezeta-kopuruaren bilakaera
Antsiolitikoak	Antsiolitikoak Nerbio Sistema Zentrala inhibititu eta eragin antsiolitikoa lortzea helburu duten sendagaiak dira.	+496
Antipsikotikoak	Droga psikoaktibo bat da, psikosiak kudeatzeko erabilia; eskizofrenia eta desoreka bipolarra, zehazki.	+81
Antidepresiboak	Sendagai psikoaktibo familia handi bat dira. Batik bat erabiltzen dira depresio asalduretan, baina baita bestelakoetan ere, distimian, nahasmendu obsesibo-kompulsiboan, min kronikoan, elikadurarekin eta loarekin lotutako arazoetan eta abar.	+92
Antiepileptikoak	Konbulsioei edo eraso epileptikoei aurre egiteko, aurrea hartzeko edo eteteko farmakoa da.	+54
Hipnotikoak eta lasaigarriak	Lasaigarriek jarduera gutxitzen dute, hartzailearen kitzikapena eta lasaitasuna moteltzen ditu; eta hipnotiko batek, logura sortzen duen heinean, lo egiten hastea eta mantentzea errazten du.	+47
Psikoestimulatzaileak, AGHA eta nootropikoentzat	Arreta galeragatiko eta hiperaktibitateagatiko asaldura tratatzeko baliatzen diren medikamentuak.	-48

Iturria: Osakidetza, 2025ko urtarrila

Arrasaten 2014 eta 2024 artean 0 eta 20 adin tarteko haur eta nerabeei preskribatutako psikofarmako kopurua, motaren arabera (laburpena)



Iturria: Osakidetza, 2025ko urtarila

Datuak ikusita, beraz, esanguratsua da zein bilakaera izan duten haur eta nerabeen kasuan zenbait psikofarmakoren preskripzioek: gaur egun Arrasaten 0 eta 20 urte bitarteko haur eta nerabeek gehien hartzen dituzten psikofarmakoak **antsiolitikoak** (alde oso handiarekin), **antipsikotikoak** eta **antidepressiboak** dira. Jarraian datoz **Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko Asaldura tratatzeko baliatzen diren medikamentuak** (orain 10 urte ohikoenak zirenak eta orain 4. postuan daudenak). Eta, horrez gain, **antiepileptikoek** eta **hipnotiko edo lasaigarriek** ere igoera esanguratsua izan dute aztertutako denboran zehar.

Aldi berean, esan behar da preskripzio-kopuru horiek ez datozela guztiz bat patologia horien diagnostikoen areagotzearekin. Hortaz, pentsa daiteke osasun sisteman sendagai batzuk errezetatzeko orokortutako joerek ere eragina izan dezaketela bilakaera horietan.

3. ERANTZUNAK

3.1. Haur eta nerabeek pairatzen dituzten ondorez horiei erantzuteko ekosistema sendoa du Arrasatek baina badaude hobetzeko eta indartzeko beharra duten alderdiak

Diagnostikoan identifikatu eta izendatu ditugun problematika edo ondorez horiek tokian toki gorpuzten dira modu anitzetan: herrietan, familietan, eskoletan, lagun taldeetan, aisialdi-eremuan... Horregatik, horiei erantzuna emateko berariazko estrategiak beharrezkoak dira.

Zentzu horretan, **Arrasatek sare sendoa du**: askotariko programa, zerbitzu, azpiegitura eta eragile sozial aktiboak ditu, haur eta nerabeek pairatzen dituzten ondorez horiei, modu batera edo bestera, erantzuna ematea helburu dutenak, hala nola:

- Zaurgarritasun egoerei aurre egiteko.
- Osasun arloko gaixotasun eta nahasmenduei aurre egiteko.
- Aisialdi osasuntsua, kultura, kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko.
- Euskararen ikasketa laguntzeko.
- Pertsonen ahalduentzea eta parekidetasuna sustatzeko.
- Haur, nerabe eta gazteen parte hartze komunitarioa sustatzeko.

Arazoa, ordea, honakoa da:

- Egun martxan dauden baliabide horietariko asko saturatuta daude, arazo estruktural asko daudelako eta errekurtsio nahikorik ez dutelako (pertsonalak, ekonomikoak, azpiegiturei lotutakoak...). Egindako lanketan zehar honako adibide batzuk identifikatu dira, esaterako:
 - *Eragile sozialek edo udal zerbitzuek lan oso ona egiten badute ere, sarritan eskaini ditzaketen zerbitzuak ez dira nahikoak haur eta nerabeentzat, ez dira iritsi behar duten horrengana iristen behar duten modura.*
 - *Osasun mentalaren eremuan, alor publikoan ez dago baliabide nahikorik eta jendea pribatura joan ohi da.*
 - *Genero biolentzia kasuak artatzeko, haur eta nerabeen kasu larrietan, itxaron zerrenda izugarriak daude, hilabeteetakoak.*
- Horrez gain, Arrasateko ekosistema horretako egitasmo guztiek ez dute ondorezen artatze eta prebentzioari dagokionez ardura-maila berdina. Hortaz, ezin aldera daitezke erakunde publikoek sostengatzen duten osasun-sistema; udalak sostengatu behar dituen haur eta nerabeei zuzenduriko baliabide eta zerbitzuak; edo sare-komunitarioa oinarrian duten bestelako jarduerak.

Arazo horiek, hortaz, **erantzunak behar dituzte**.

3.2. Arazo sistemikoari irtenbide kolektiboak; eta irtenbide berriak baino, baliabide gehiago, tokian tokiko errealitatea kontutan hartuaz, dagoen ekosistema etengabe indartuaz eta sustatzaile guztien jarduna hobeto koordinatuaz

Identifikatutako arazo edo problematikei erantzun efektiboak emateko, kontutan hartu behar da horiek dimentsio osoari erantzun behar diotela, tokian tokitik hasi eta sistema orokorreraino. Hau da: **integralak eta sistemikoak beharko dute izan erantzun horiek.**

Izan ere, gero eta ohikoagoa da, haur eta nerabeen ongizate emozionala kaltetzen duten **problematikak sistemak eraginak badira ere, horiei irtenbideak modu indibidualean ematea** (osasun mentalaren eremuko problematikei, esaterako). Horrela, ordea, problematika partikularrei erantzuna ematea soilik lortzen da. Horregatik, begirada kolektiboa eta komunitarioa presente izatea beharrezkoa da gaiari integralki heltzeko.

Puntu honetara helduta, muga batekin egiten dugu topo: diagnostiko honek Arrasateko udalaren enkargu bati erantzuten dio, tokiko erakunde baten enkarguari, hain zuzen ere. Nabarmena da ezinezkoa izango zaigula maila lokaletik sistema globala aldatzea eta badirela zenbait neurri herritik hartu ezingo direnak. **Eraldaketa globala lokaletik hasten ez bada, ordea, ez da izango:** lokalak markatu beharko du norabidea; inspiratu beharko ditu neurri sistemiko berriak, politika berriak; egin beharko du pedagogia gizarte oso baten ardura interpelatzeko; eta sortu beharko du sarea lanari ekiteko. Diagnostiko honek, norabide horretan lehen pausua izateko borondatea du.

Horri lotuta, honako markoari erreferentzia egitea beharrezkoa da: Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Haurtzaro eta Nerabetasun Legea (2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa)⁹.

Horren arabera, haur eta nerabeak ez dira soilik babestu beharreko subjektuak, gizarteko eragile aktiboak baizik. Horregatik, bizitzako esparru ezberdinetan, bai eremu publikoan zein pribatuan, beren eskubideak aitortu, sustatu, prebenitu eta berrezartzeko bidean ere aurrerapausoak eman behar dira.

Zeregin horretan, **komunitate osoarena da ardura legearen arabera; eta, herri-administrazioen betebeharra** da (udalena, bereziki), komunitatearen ordezkari gisara, **honako eremutan esku-hartzeak egitea eta estrategiaren norabidea finkatzea:**

- Familia-eremua
- Hezkuntza arloa
- Kirolaren eta aisialdiaren esparrua
- Eremu digitala
- Osasun-arloa
- Gizarte Zerbitzuak
- Komunikabideak

Egun haur eta nerabeek pairatzen dituzten ondoezei erantzuteko ekosistemak dituen arazoei erantzunak eta konponbidea emateko badaude, hortaz, hobetzeko eta indartzeko beharra duten

⁹ Xehetasun gehiagorako, ikusi lehen eranskina.

alderdiak: instituzioek **beharrezkoak diren baliabideak (petsonalak, materialak eta ekonomikoak) bermatu behar dituzte** berei dagozkien betebeharrei erantzuteko; eta udalerri mailako estrategia bateratu baten beharra dago, eremu horretan lanean ari diren **herritar, eragile eta erakundeen arteko koordinazioa** indartuaz eta, batik bat, sare-komunitarioen eta sen-komunitarioaren artikulazioa bilatuaz, erantzuna eragin eremu ezberdinetatik modu bateratuan emateko.

Zeregin horiei erantzuteko Arrasateko komunitateak proposatu dituen ideiak txostenaren hurrengo eta azken atalean jaso ditugu.

8 ESKU-HARTZEKO EKINTZAK

Atal honetan Arrasaten haur eta nerabeekin lana egiten duen komunitate zabalak ondorioei erantzuna emateko proposatutako ekintzak jaso ditugu. Horiek 2025eko martxoaren 11ean eta 25ean egindako Komunitate Hausnarguneetan bildu, landu, lehenetsi eta denboralizatu ziren.

GAIA	HELBURUAK	EKINTZAK EDO PROIEKTUAK	EPEAK			ARDURADUNAK
			Urgentea (6 hil. >)	Motza (1-2 urte)	Ertain-luzea (3-4 urte)	
Osasun arloa	Osasun mentaleko kolapsoari irtenbidea ematea eta zerbitzu publikoa indartzea	Osakidetzan baliabide gehiago osasun mentalerako (heldu eta adin txikikoentzat).				Osakidetza
		Esparru politikotik osasun arloko arduradunekin harremanak eta elkarrizketak hasi Osasun Mentaleko kolapsoari irtenbidea bilatzeko eta legeak aipatzen dituen baliabide berriak martxan jartzeko: egoitza unitate soziosanitarioak osasun mentaleko nahasmenduak eta muga funtzional larriak dituzten adingabeentzako.				Arrasateko udala: - Udal gobernua.
	Gaixotasun eta nahasmenduei aurre egitea	Esparru tekniko eta politikotik, arazoak edo egora ezberdinak (kontsumoak, anorexia, desgaitasun fisikoa, desgaitasun kognitiboa, autismoa etab) dituzten adingabeekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeekin harremanetan jarri, Arrasateko adingabeak eta haien familiak Arrasaten artatuak izateko.				Arrasateko udala: - Kirola. - Gizarte Zerbitzuak. - Udal gobernua.
		Terapia psikologiko publikoa eta kalitatezkoa bermatu.				Osakidetza Arrasateko udala: - Udal gobernua.
		Terapia psikologikorako Osakidetza betetzen ez duen eremuan irtenbideak eman: laguntza ekonomikoa, bonoak, psikologia zerbitzuetarako, talde-terapia, prebentzio lana egin komunitateari zuzenduta, motibazio tailerrak...				Arrasateko udala: - Udal gobernua.
		Egun zerbitzuen artean egiten den koordinazio goiztiarrerako lanketan sakondu, koordinazio puntualetik harago, mahai iraunkor bat sortuta eta bertara eragile berriak parte hartzera gonbidatuta: hezkuntza formala eta ez-formala, pediatria eta lehen arreta, gizarte zerbitzuak, hezitzaileak...				Arrasateko udala: - Gizarte Zerbitzuak. - Gazteria.

GAIA	HELBURUAK	EKINTZAK EDO PROIEKTUAK	EPEAK			ARDURADUNAK	OHARRAK
			Urgentea (6 hil. >)	Motza (1-2 urte)	Ertain-luzea (3-4 urte)		
Zaugarritasun egoerak	Familia zaugarrien babesa	Udaleko Gizarte Zerbitzuetako haurren eta familien arloko taldeak (Gizarte Langileak, detekzio eta eskuhartze goiztiarreko lan taldeak, kale hezitzaileak eta eskuhartze familiarreko profesionalak) sendotu eta itxaron zerrendak ez egotea bermatu.				Arrasateko udala: - Udal gobernua.	
		Esparru politikotik, harremanak eta elkarrizketak hastea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, administrazio horren mendeko baliabideetako kolapso-egoerari eta itxaron-zerrendei irtenbidea bilatzeko.				Arrasateko udala: - Udal gobernua.	
		Familiek izan ditzaketen lehen mailako beharrak asetzeko baliabideak eskaini.				Arrasateko udala: - Udal gobernua.	
	Gizarte bazterketaren prebentzioa eta detekzioa egin	Familiekin kontaktuan dagoen edozein profesionalak gizarte Zerbitzuen existentziaren berri ematea.				Arrasateko udala: - Gazteria. - Feminismoak. - Euskara.	
		Prebentzio komunitarioko programa bat inplementatzea, udaleko teknikariek eta politikariek gidatua, mahai iraunkor batean estamentu desberdinetako ordezkariak elkartuta, komunitateko baliabide guztiak optimizatuko dituzten ekintza koordinatuak planifikatu eta artikulatzeko eta droga-mendekotasunaren eta delinkuentzia-marjinazioaren arazoari erantzuna emateko.				Arrasateko udala: - Gizarte Zerbitzuak. - Gazteria. - Udal gobernua. Osasun mentala (Osakidetza) Ikastetxeak Kirol eta aisialdi elkarteetako ordezkariak	<i>Proposamena mardulegia izan daitekeela aipatu da eta dagoeneko egiten dela lanketa hori, beste modu batean bada ere.</i>
	Eskola ingurunetik	Ongizate eta Babeserako Koordinatzailea figura finkatu eta landu.				Arrasateko udala: - Udal gobernua.	

ARRASATEKO HAUR ETA NERABEEN ONGIZATE EMOZIONALA | ESKU-HARTZEKO EKINTZAK

	hasita haur eta nerabeen egoera zaurgarrien prebentzioa eta detekzioa egin	(Hautzaro eta Nerabetasun Legearen 135. Artikulua).				- Gizarte Zerbitzuak.	
		Zailtasunak dituzten adin txikikoei laguntza eskaini, egungo baliabideak indartuta.				Arrasateko udala: - Udal gobernua. - Gizarte Zerbitzuak. - Kirola. Ikastetxeak	<i>Proposamen hau gehiago zehaztea beharrezkoa dela aipatu da, orokorregia dela.</i>
		Eskola ingurunean problematiken identifikazioa egiteko (tratu txarrak, sexu-abusuak edo adingabe baten abandonuaren susmoa) erreferentziako telefono bat abian jarri, gutxienez, zalantzak kontsultatu ahal izateko, kaltetutako adingabearen anonimatua gordeta.				Arrasateko udala: - Gizarte Zerbitzuak. - Feminismoak. Ikastetxeak	<i>Proposamen honek zalantza sortu du</i>
		Esparru politikotik, Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan eta elkarrizketetan hastea, banatze eta dibortzio prozesuetan bitartekaritza taldeak eta Familia Elkarguneak Arrasaten sortzeko eta finkatzeko. (Udalak lokalak eskainiz adibidez).				Arrasateko udala: - Udal gobernua.	
	Harrera komunitarioa egin	Bizikidetza eta aniztasun planean jaso moduan, familia etorri berriei harrera egin, horretarako berariazko eskuliburu egokituak sortuta (gurasoentzat, haurrentzat eta nerabeentzat), hainbat hizkuntzatan.				Arrasateko udala: - Gizarte Zerbitzuak. - Gazteria. - Euskara. Ikastetxeak Kale hezitzaileak Txatxilipurdi Eskola Kirola	
	Egoera zaurgarrien ulerkera zabala bermatu	Zaurgarritasuna zer den modu zabalean definitu.				Arrasateko udala: - Gizarte Zerbitzuak. - Feminismoak.	

ARRASATEKO HAUR ETA NERABEEN ONGIZATE EMOZIONALA | ESKU-HARTZEKO EKINTZAK

	Egoera zaugarrian dauden herritarren parte hartze komunitarioa bermatu	Antolatzen diren ekintzetan, hartzen diren erabakietan... zaugarriak diren pertsonak ere kontutan hartu.				Arrasateko udala: - Gazteria.	
--	--	--	--	--	--	----------------------------------	--

GAIA	HELBURUA	EKINTZAK EDO PROIEKTUAK	EPEAK			ARDURADUNAK	OHARRAK
			Urgentea (6 hil. >)	Motza (1-2 urte)	Ertain-luzea (3-4 urte)		
Aisialdi osasuntsua, kirola eta jarduera fisikoa	Egungo eskaintza zabaldu baliabide publikoak indartuta	Kirol eta aisialdi arloan eskaintza handitu batez ere asteburuetarako.				Arrasateko udala: - Kirola. - Gazteria.	
		Aisialdi osasuntsurako guneak sortu, pantailak alde batera utzita aisialdiko jarduerak garatu ahal izateko.				Arrasateko udala: - Kirola. - Gazteria. - Hirigintza. Altxa Burua ekimena Guraso Elkartek	
		Gazte ezberdinen arteko harremana eta elkar-ezagutza sustatu: egonaldiak antolatu lagun talde desberdinekin.				Arrasateko udala: - Kirola. - Udal gobernua. - Gazteria. - Euskara.	
	Kultura, kirol eta aisialdi baliabide eta jardueretarako eta haurren arreta-zerbitzueterako sarbidea familia guztiei bermatu eta erraztu.	Errenta baxuko familientzat bonifikazioak eskaini				Arrasateko udala: - Udal gobernua. - Kirola. - Kultura. - Gazteria.	
	Kirola eta jarduera fisiko osasungarria baliatu balio positiboak sustatzeko: autokontzeptua indartu, taldearen garrantzia, erreferente osasuntsuak eta anitzak...	Kirol eta aisialdi arloan: Babes-Ordezkarri figura finkatu eta profila landu (Haurtzaro eta Nerabetasun Legearen 138. Artikulua).				Arrasateko udala: - Kirola. - Gizarte Zerbitzuak. - Gazteria. Kirol eta aisialdi elkarteak	<i>Ekintza hau abian jartzea ezinbestekoa bada ere, aurrelanketa behar dela aipatu da: ordezkarri horren rola eta profila zein behar den izan landu behar da. Horrez gain, dagoeneko existitzen den KOS zerbitzuarekin lotura estua duela ere aipatu da.</i>

ARRASATEKO HAUR ETA NERABEEN ONGIZATE EMOZIONALA | ESKU-HARTZEKO EKINTZAK

		Hezitzaileen papera eta erreferentzialtasuna sendotu.				Arrasateko udala: - Kirola. - Gazteria.	
--	--	---	--	--	--	---	--

GAIA	HELBURUA	EKINTZAK EDO PROIEKTUAK	EPEAK			ARDURADUNAK	OHARRAK
			Urgentea (6 hil. >)	Motza (1-2 urte)	Ertain-luzea (3-4 urte)		
Haur eta nerabeen ongizatea eta eskubide parekidetasuna	Ongizatea baldintzatzen duten gaiei zeharkako ikuspegiz erantzun, eragile ezberdinekin lanketa eginez: gurasoak, adin txikikoak eta profesionalak	Gurasoei eta haur eta nerabeei zuzendutako formakuntza-saioak eskaini, gai anitzen inguruan: balioak, gertuko eredu positiboak, desdigitalizazioa etxean, pantailen erabilera, autoestimua indartzeko programak, maskulinitate eredua, drogen erabilera, interneteko arriskuak, mugak...				Arrasateko udala: - Feminismoak. - Gizarte Zerbitzuak - Gazteria. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila Eragile komunitarioak	<i>Ekimen hau abian jartzea lehenetsi bada ere, aipatu da zailtasunak dituzten familiengana heltzeko berariazko estrategiak ere abian jartzea beharrezkoa dela, horiek kanpo geratzeko arriskua handia baita bestela.</i>
		Sare sozialen erabilerari lotuta, erabilerarako adinaren araberako mugak ipini eta gurasoen ikuskaritza bermatu				Arrasateko udala: - Gizarte Zerbitzuak - Gazteria. - Euskara. Altxa Burua. Ikastetxeak. Hezkuntza ez-formaleko eragileak. Gurasoak	
		Ikastetxeetan irakasleak trebatu, ongizate emozionalaren inguruan edukiak lantzeko eta ikasleak trebetasun sozioemozionaletan trebatzeko.				Arrasateko Udala: - Gizarte Zerbitzuak. - Feminismoak. Ikastetxeak Osakidetza Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila	

		Egungo programak egokitu, behar bereziak dituztenei ere tokia egiteko: prebentzio plan zehatzak landu, problematika bakoitzean zentratuta.				Ikastetxeak Osakidetza Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila Arrasateko Udala: - Gizarte Zerbitzuak. - Gazteria.	
		Hezkuntza ez-formaleko programetako monitore eta hezitzaileak formatzen jarraitu haur eta nerabeekin trebetasun sozioemozionalak lantzeko.				Arrasateko udala: - Gizarte zerbitzuak. - Gazteria. - Kirola. Hezkuntza ez-formaleko eragileak	

GAIA	HELBURUA	EKINTZAK EDO PROIEKTUAK	EPEAK			ARDURADUNAK
			Urgentea (6 hil. >)	Motza (1-2 urte)	Ertain-luzea (3-4 urte)	
Euskara	Euskaraz ez dakiten haur eta nerabeei hizkuntzaren ikasketa bermatu	Euskararen murgiltzeko fasea sortu, euskaraz ez dakiten haur eta gazteak hezkuntza arautuan sartu aurretik ikasteko aukera izan dezaten.				Arrasateko udala: - Euskara - Gazteria Ikastetxeak Hezkuntza Saila Euskalgintzako eragileak

GAIA	HELBURUA	EKINTZAK EDO PROIEKTUAK	EPEAK			ARDURADUNAK
			Urgentea (6 hil. >)	Motza (1-2 urte)	Ertain-luzea (3-4 urte)	
Haur, nerabe eta gazteen ahalduntzea	Haur nerabe eta gazteen parte hartze komunitarioa sustatu eta posible egin	Haur eta nerabeen ikuspuntua politika publikoetan (protokoloen lanketa, ekintza, jarduera edo zerbitzuen programazioa...) presente izateko mekanismoak garatu eta abian jarri: nerabeei galdetu, batera sortu, erantzukizunak eman.				Arrasateko udala: - Udal gobernu - Hirigintza - Kirola - Kultura - Gazteria - Euskara

GAIA	HELBURUA	EKINTZAK EDO PROIEKTUAK	EPEAK			ARDURADUNAK
			Urgentea (6 hil. >)	Motza (1-2 urte)	Ertain-luzea (3-4 urte)	
Zeharkako ekintzak	Haur, nerabe eta gazteen ahalduntzea	Hautzaro eta Nerabezaro Legearen inguruan saioak antolatu, profesional desberdinekin berei dagozkien eskumenak argitzeko, legea ezagutarazteko eta legeak markatzen dituen egin behar zehatzak bermatzeko.				Arrasateko udala: - Gazteria - Gizarte Zerbitzuak
		Hezkuntza eragileen arteko lan saretua sustatu, herri hezitzailearen logikari erantzunez: elkarlana zerbitzu ezberdinen artean, erabiltzaile-familia-profesionalen artean...				Arrasateko udala: - Gizarte Zerbitzuak - Euskara - Feminismoak - Gazteria
		Ikuspegi feminista txertatu haur, nerabe eta gazteei zuzendutako politiketan.				Arrasateko udala: - Feminismoak - Gazteria
		Gazteentzako bizigarriak diren espazio fisikoak sortu.				Arrasateko udala: - Gazteria - Hirigintza
		Marjinazioaren eta delinkuentziaren garapena eta igoera neutralizatzeko ghetifikatutako espazioetan esku-hartu.				Arrasateko udala: - Hirigintza - Gizarte Zerbitzuak - Udaltzaingoa - Gazteria

9 ERANSKINAK

Hautzaro eta Nerabetasun Legea (Otsailaren 25eko 2/2024 Legea)

Otsailaren 25eko 2/2024 Legeak, Haur eta Nerabeei buruzkoak, izaera integrala du. Testu bakar batean biltzen ditu haurrei eta nerabeei buruzko gai guztiak, eta arreta berezia jartzen du haien eskubideen erabilera ziurtatzera eta babestera bideratutakoetan. Horretarako, arau juridiko berean biltzen dira hautzaroari eta nerabezaroari buruzko Estatuko oinarritzko legeria, legegintza-kidego desberdinetan sakabanatuta dagoena, bai eta autonomia-erkidegoetako lege sektorialetan haurrei eta nerabeei buruz jasotako arau-xedapenak ere.

Legearen egitura eta edukiak

Haurren eta Nerabeen Legea hamaika titulutan egituratuta dago, eta haien edukiak artikulatzen dituzten 337 artikulua jasotzen dituzte.

Testu arauemailea hasteko, legearen eremu objektiboa eta subjektiboa definitu aurreko zioen eta aurrekari arauemaileen azalpena egiten da.

Atariko tituluak berariaz jasotzen ditu legearen xedea, aplikazio-eremua, legeak eta hura garatzeko xedapenek kontuan hartuko dituzten kontzeptuen definizioak, bai eta euskal administrazio publikoek beren esku-hartzeak antolatzekeo jardun-ardatzak ere.

I. tituluak xedapen orokor batzuk ematen ditu, euskal administrazio publikoek, haurrak eta nerabeak sustatu, prebenitu, zaindu eta babesteko dituzten eskumenak erabiliz, zer printzipioren arabera jardun behar duten zehatz eta zehatz azaltzeko, eta gizarte eta merkataritza-ekimenarekiko lankidetzeta eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenaren sustapena jasotzen ditu. Era berean, komunikatzeko betebeharrari (herritarrei eta pertsoneri eska dakiekeen komunikazio kualifikatuari, beren kargu, lanbide edo eginkizunengatik, ogibide edo jardueragatik), komunikazioen konfidentzialtasunari eta segurtasunari eta erreserba-betebeharrari buruzko alderdiak sartzen dira.

II. tituluak haurren eta nerabeen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen esparru orokorra ezartzen du, eta adingabe orori dagozkion giza eskubideen multzoa biltzen du.

III. tituluak modu sistematiko, ordenatu eta zehatzean jorratzen du haurren eta nerabeen ongizatea eta haien eskubideak egikaritzea sustatzea, bai eta horiek gauzatzeak ekar ditzakeen betebeharrak, mugak eta murrizketak ere.

IV. tituluak osasun fisiko eta mentalerako eta hezkuntza-garapenerako kaltegarriak diren egoerak prebenitu, detektatu eta artatzeari buruzkoa da, bai eta haurren eta nerabeen ongizate materialari eta gizarteratzeari eragiten diotenei buruzkoa ere.

V. tituluak haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoeren prebentzioa, detekzioa eta babesa azpimarratzen ditu, arau-testu honetan definituta, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren Aurrean Osorik Babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak eremu horretan defendatzen duen prebentzio-, sozializazio- eta hezkuntza-helburu hirukoitzarekin bat etorriz.

VI. tituluak haurren eta nerabeen babesgabetasunarekiko kalteberatasun-egoeren eta babesgabetasun-egoeren (arriskukoak edo babesgabetasunekoak izan) prebentzioa, detekzioa eta babesa arautzen ditu, baita egoera horien ondorioz urratutako eskubideak berreskuratzea eta itzultzea ere, hala dagokionean.

VII. titulua zigor-legearekin gatazkan dauden adingabeei gizarte eta hezkuntza-arreta emateari buruzkoa da. Ildo horretan, ezartzen diren aurreikuspenak zigor-arloko legea urratzen duten jokabideak prebenitzera bideratuta daude, haurren eta nerabeen ongizatea sustatzeko ekintzaren esparruan.

VIII. tituluak erakundeen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako organoak eta kontsultarako eta gizarte-partaidetzarako organoak ezartzen ditu. Arauak Haur eta Nerabeentzako Erakunde arteko eta Sektore arteko Organoaren, Haur eta Nerabeentzako Euskal Kontseiluaren eta Haur eta Nerabeen Foroaren sorrera jasotzen du, kasu bakoitzean oinarritzko funtzioak zehaztuta.

IX. tituluaren xedea haurren eta nerabeen arretaren eremua garatzea eta hobetzea da, eta berariaz jasotzen da Haurrei eta Nerabeei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren sorrera, Euskadiko adingabeen egoeraren eta haien beharren ezagutza eguneratua, jarraitua eta uniforme bermatzeko, bai legearen garapen-mailaren jarraipena egiteko, bai estatistiken ondorioetarako.

X. tituluak haurren eta nerabeen esparru espezifiko eta propioan aplikatzekoa den eskumen-araubidea azpimarratzen du. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek arlo horretan dituzten ahalmenak eta eginkizunak osorik arautzen ditu, bereziki sustapen, prebentzio, arreta- eta babes-jarduerei dagokienez.

XI. tituluak zehapen-araubidea artikulatzen du, subjektu erantzuleen definizioarekin, arau-hauste administratiboen tipifikazioa, zehapenen zehaztapena, horiek mailakatzeko eta aplikatzeko elementuak zehaztuz, baita horien preskripzioa eta zehapen-prozedura garatzeko elementuak ere.

Eraginpeko eremuak

Adingabeen eskubideak eta ongizatea bermatzeko hainbat arlotan neurriak hartzeko beharra planteatzen du legeak:

- Familia eremua: Familia eremuan indarkeria prebenitzeko neurriak hartu behar dira, eta familia ingurune egoki eta indarkeriarik gabekoa sustatu. Horren barruan sartzen da familiei laguntzea seme-alabak hazteko betebeharrak gauzatzen, familia eta lana uztartzen, eta gurasokidetasuna (coparentalidad).
- Hezkuntza arloa: Ikastetxeak ingurune seguruak direla bermatzeko eta tolerantzia, elkartasuna eta diskriminaziorik eza bezalako baloreak sustatzeko neurriak ezarri behar dira. Horrek barne hartzen ditu eskola jazarpena prebenitzea eta genero berdintasuna sustatzea.
- Osasun-arloa: Neurriak hartu behar dira osasun-arreta jasotzeko aukera bermatzeko eta haur eta nerabeen artean gaixotasunak eta nahasmenduak prebenitzeko. Horrek barne hartzen ditu sexu eta ugalketa osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa.
- Ongizate materialaren eta gizarteratzearen eremua: Haurren pobrezia prebenitzeko neurriak hartu behar dira, eta adingabeek ongizate materialaren oinarritzko maila izateko aukera bermatzeko. Horren barruan sartzen dira gurasoak lan-munduan sartzea errazteko neurriak, etxeko ekonomia kudeatzeko prestakuntza-programak eta osasun fisiko eta mentalerako kaltegarriak diren ohiturak prebenitzeko kanpainak.
- Esparru judiziala: Neurriak hartu behar dira indarkeriaren biktima diren adingabeek legean aitortutako eskubideak berdintasun baldintzetan eskuratu ahal izatea bermatzeko. Horren barruan sartzen da esparru judizialean beren eskubideen eta interesen defentsa bermatzeko behar diren bitartekoak eskura jartzea.

- Kirolaren eta aisialdiaren esparrua: Kirolaren eta aisialdiaren arloan eragin berezia duten jarduerak arautu behar dira.
- Harreman-, informazio- eta komunikazio-teknologiaren esparrua: Harreman-, informazio- eta komunikazio-teknologiaren eragin berezia duten jarduerak arautu behar dira, bereziki indarkeria digitala.

Udalen papera legearen garapenean

Udalen eginkizuna Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen garapenean funtsezkoa da, eta hainbat jarduera-eremu hartzen ditu. Udalek berariazko eskumenak dituzte beren lurralde-eremuan adingabeak sustatzeko, prebenitzeko, artatzeko eta babesteko.

Udalek eginkizun orokor hauek dituzte:

- Erregelamenduak egiteko ahala, bere zerbitzuak antolatzeke.
- Bere ardurapekoak diren zerbitzuen plangintza egitea.
- Bere eskumeneko zerbitzuen prezio publikoak ezartzea.
- Bere titulartasuneko zerbitzu eta zentroak ikuskatzea eta zehatzeko ahalmena erabiltzea, baita udal eskumeneko zerbitzuak emateko hitzartu, kontratatu edo hitzartu diren titulartasun pribatuko zerbitzu eta zentroak ere.
- Gizarte-ekimena sustatzea eta bultzatzea, bai eta herritarren parte-hartzea, asoziazionismoa eta borondatezko lana ere, bereziki adingabeena.

Jarduera-arlo espezifikoetarako dagokienez, udalek zeregin garrantzitsuak dute arlo hauetan:

- Haurren eta nerabeen eskubideak sustatzea: lege honen III. tituluan esleitzen zaizkien eginkizunak betetzea dagokie, beren lurralde-eremuan.
- Egoera kaltegarrien prebentzioa, detekzioa eta arreta: Lege honen IV. tituluan esleitzen zaizkien eginkizunak bete behar dituzte, osasunaren, hezkuntzaren, ongizate materialaren eta inklusioaren arloetan.
- Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria: Indarkeria prebenitzeko, detektatzeko eta babesteko neurriak artikulatzea, bai familian, bai komunitatean. Horren barruan sartzen da Eusko Jaurlaritzarekin eta foru-aldundiekin lankidetzan aritzea, indarkeriari aurre egiteko sektorekako jarduera-protokoloak diseinatzeko eta ezartzeko.
- Babesgabetasuna: Prebentzioa, detekzio goiztiarra, analisia, balorazioa, diagnostikoa eta arreta ematea babesgabetasun-egoera ahulei eta arrisku arin eta moderatutzat jotzen diren egoerei, bai eta foru-aldundietara bideratzea ere arrisku larritzat edo babesgabetzat jotzen diren egoerak.
- Arau-hausle adingabeei gizarte eta hezkuntza arreta ematea: Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzea, neurri judizialak aplikatzeko, neurri horiek ingurune komunitarioan garatu behar direnean. Haurrak eta nerabeak babesteko esparruan, zigor-arloan tipifikatutako egitateen egile diren hamalau urtetik beherako pertsonen arreta ematea.

Gainera, legeak ezartzen duenez, Haur eta Nerabeentzako Erakunde arteko eta Sektore arteko Organoan eta Haur eta Nerabeentzako Euskal Kontseiluan udalak ordezkatzeko ardura Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan zabalduen dagoen eta ordezkaritza zabalena duen autonomia-esparruko toki-erakundearen elkarrekin izango du. Udalek, halaber, Estatuan Adingabeen Tutoretzen Indizeari, Haurren aurkako Indarkeriari buruzko Gizarte Zerbitzuen Erregistro Bateratuari eta Haurren

eta Nerabeen aurkako Indarkeriari buruzko Erregistro Zentralari gehitu beharreko informazioa eman behar diete.